



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko urtarrilaren 23a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Nafarroako 2004ko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egin (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 2004ko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko abenduaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako 2004ko kontu orokorren azterketari buruz Nafarroako Comptos Ganberak emandako txostena ikusita, hona ERABAKIA:

1. Txosten horren jakitun dagoela adieraztea.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2005eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako 2004ko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- A) NAFARROAKO 2004KO KONTU OROKORRAK (4. or.).
- II. Helburua (4. or.).
- III. Nafarroako 2004ko kontu orokorren edukia. (4. or.).
- IV. Lanaren norainokoa eta mugak (5. or.).
- V. Iritzia (6. or.).
- VI. 2004ko kontu orokorrak osatzen dituzten egoera finantzarioei buruzko laburpena (11. or.).
- VII. Nafarroako kontu orokorretako oroitidazkiaren informazio osagarria eta lan iruzkin berariazkoak (14. or.).
- VIII. Gomendio orokorrak (27. or.).
- B) FORU SEKTORE PUBLIKOAREN GAINERAKO KONTUAK (29. or.).
- IX. Foru sektore publikoko beste entitate batzuk (29. or.).

C) FORU SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA (32. or.).

X Foru sektore publikoaren finantza egoerari buruzko ondorio nagusiak (32. or.).

Eranskina: Kontabilitate emaitza publikoen tipologiaren analisia (34. or.).

Gehigarria. Nafarroako Tributu Ogasunak igorritako informazioa (37. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 113. artikulua arabera, Nafarroako 2003ko kontu orokorrek ondoko hauek jasotzen dituzte:

- Parlamentu-erakundearen kontuak (Nafarroako Parlamentua, Arartekoa eta Comptos Ganbera).

- Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuak. Kontu horietan Nafarroako Kontseiluarenak eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluarenak ere sartzen dira.

- Nafarroako Gobernuak, zuzenean edo zeharka, kapital-partaidetzaren gehiengoaren dueneko sozietate publikoen kontuak.

2003an hasitako edukien eskemari jarraituz, Nafarroako Gobernuak ondoren aipatzen diren entitateetako urteko kontuak sartu ditu, haiei buruzko informazioa ematearren:

- Foru Komunitateko administrazioaren menpekoak diren beste erakunde publiko batzuk: Nafarroako Su-itxaltze eta Salbamendurako Partzergoa.

- Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari loturiko erakunde publikoak: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

- Administrazio korporatiboa: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

• Zortzi fundazio publiko, hain zuzen ere hurrengoak:


- a) Tutela de Personas Adultas.
- b) Baluarte.
- c) Conservación del Patrimonio Histórico
- d) Cetenasa.
- e) Cener-Ciemat

f) Miguel Servet

g) Pablo Sarasate

h) Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa

Azken batean, 2004ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko dokumentuak foru sektore publikoaren honako osaketa biltzen du:



Aurreko eskema bat dator Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak foru sektore publikoari buruz ezarritako kontzeptuarekin. Arau horrek foru sektore publikoa osatzen duten erakunde publikoen eta bestelako enteen sortzeko modua, antolamendua eta araubide juridikoa ezartzen ditu. 2005eko martxoaren 1ean hartu du indarra.

Aurreko iruzkinak kontuan harturik, fiskalizazio txostenaren egitura ondoko zati hauek osatzen dute, edukiak zehaztuta:

- 2004ko Nafarroako kontu orokorrari buruzko iritzia ematea, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ezarritako edukiarekin bat eta Comptos Ganberari buruzko arauetan ezarritakoarekin bat (II. ataletik VIII. atalera).

- Foru sektore publikoaren gainerakoari buruzko azterketa; Nafarroako Gobernuak haren kontuak kontu orokorretan gehitu ditu, hari buruzko informazioa ematearren (IX. atala).

- Foru sektore publikoak 2004ko abenduaren 31n duen finantza egoera orokorrari buruzko azterketa (X. atala).

Txostenaren osagarri, eranskin batean jaso da kontabilitate emaitza publikoen tipologiaren analisia.

Landa-lana 2005eko maiatzetik irailera bitarte egin zuten auditore batek eta auditoriako sei teknikaririk osatutako taldeak, praktiketan ari zen unibertsitate-ikasle baten laguntzarekin aldi batean, eta Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboaren laguntzarekin.

Nafarroako Gobernuko langileei eta, bereziki, Ekonomia eta Ogasun Departamentukoei, eskerak eman nahi dizkiegu gure lana egiteko eman diguten laguntzarengatik.

A) NAFARROAKO 2004ko KONTU OROKORRAK

II. HELBURUA

Indarreko araudiarekin bat etorritik, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2005eko irailaren 19an hartutako erabakia betez, Nafarroako 2004ko kontu orokorrak fiskalizatu ditugu, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- 2004ko ekitaldiko Nafarroako kontu orokorrek, alderdi esanguratsu guztietan, fidelki islatzen dituzte, alderdirik behinenetan, ekitaldi horretako ondarea, aurrekontuen likidazioa eta erdietsitako emaitzak, aplikatzekoak zaizkion eta aurreko eki-

taldian aplikaturikoekin bat datozen kontabilitate printzipio eta arauetara jarraituz.

- Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ekonomi eta finantza jardura legezketasunaren hastapenaren menpe ote dagoen.

- Foru Ogasunaren 2004ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

- Nafarroako kontu orokorreari buruzko aurreko fiskalizazio txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetze maila.

Iritzirik horren osagarri, Nafarroako Gobernuak garaturiko eginkizunei atxikitako baliabide publikoen kudeaketan erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila buruzko ondorio bat eman dugu.

III. NAFARROAKO 2004ko KONTU OROKORREN EDUKIA

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 113. artikuluari jarraikiz, Nafarroako 2003ko kontu orokorren funtsezko edukiaz arituko gara:

Parlamentuaren arloan, Nafarroako Parlamentuaren, Nafarroako Arartekoaren eta Nafarroako Comptos Ganberaren kontuak sartu dira.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa Nafarroako Gobernuko hamaika departamentuek osatzen dutena da, eta haren eremuan ondoko erakunde autonomoak daude (haien aurrekontuak Nafarroako Gobernuaren aurrekontu orokorretan sartzen dira:

1. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (NAPI).

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (O-NOZ).

3. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI).

4. Nafarroako Lan Osasunaren Institutua (NLOI).

5. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NNGI).

6. Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroa (EVENA).

7. Nafarroako Emakumearen Institutua (NEI).

8. Nafarroako Enplegu Zerbitzua (NEZ).

9. Nafarroako Zerga Ogasuna (NZO).

Halaber, Nafarroako Gobernuaren gastuen aurrekontuaren likidazioan Nafarroako Kontseiluari eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari buruzko aurrekontu-informazioa sartu da.

2004an 29 enpresa publikotan dauka Nafarroako Gobernuak, zuzenean nahiz zeharka, kapitalaren jabetzaren ehuneko 50 edo gehiago; aurreko ekitaldiaren aldean, ez dago aldaketarik parte hartutako enpresen kopuruari dagokionez.

Oroitidazkiaren kasuan, fiskalizazio txosten honetan sarturik baitago, eduki nagusi hauek nabarmenduko ditugu, labur:

a) Parlamentu-erakundearen kontu orokorrak (funtsean, aurrekontuen likidazioa, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua)

b) Oroitidazki horretako sarrerak honakoak hartzen ditu: foru administrazioaren antolaketa, kontuen aurkezpenaren oinarriak eta horiek aurreko ekitaldiarekin alderatzearen ondoriozko iruzkin bat.

c) Ondoko dokumentuak eta dagozkien iruzkinak:

- Gobernuaren aurrekontuaren likidazioa 2004ko ekitaldirako, sailkapen ezberdinetan: ekonomikoa, organikoa, programakakoa eta funtzionala.

- 2004ko aurrekontuaren emaitza

- Urteko finantzen egoera-orri bateratuak: egoeraren balantzea, ekonomia eta ondare-emaitzen kontua eta funtsen jatorriaren eta aplikazioaren egoera-orria.

- Finantzei eta ondareari buruzko adierazleen azterketa.

- Abalei buruzko informazioa.

- Geroko ekitaldien kontura harturiko konpromisoen egoera.

- 2004ko ekitaldiko aurrekontu-aldaketak.

- Erakunde autonomoen eta sozietate publikoen kontuei buruzko laburpen bat.

IV. LANAREN NORAINOKOA ETA MUGAK

IV.1. LANAREN NORAINOKOA

Nafarroako Gobernuak argitaraturiko Nafarroako 2004ko kontu orokorrak ematen dute Nafarroako Gobernuak eta hura osatzen duten entitateek betetako jardueraren adierazgarri diren finantza eta aurrekontu egoera-orrien berri, xehetasun maila desberdinekin.

Gure lanaren norainokoaren jomuga izan da, batik bat, 2004ko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, 2004ko abenduaren 31ko egoera balantzea eta 2004ko ekonomia eta ondare emaitzen kontua aztertu eta zentsuratzea eta oroitidazkian aurkeztutako datuen iruzkinak eta barne koherentzia berraztertzea, hori guztia Nafarroako Gobernuari eta haren erakunde autonomo-ek dagokienez.

Kontu orokorra osatzen duten gainerako entitatei buruz, berriz, hauxe adierazi behar dugu:

- Ganbera honek parlamentu-erakunde guztiak, Nafarroako Kontseilua eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua aztertu ditu, eta lan horien emaitzak txosten honetan bildu ditu.

- Enpresa publiko guztiak kanpoko profesionalen eginiko auditoriak aurkeztu dituzte. Arlo honetan, gure jardunaren ardatza izan da kasuko txostena berrikustea, horretatik iritzia eta ondorio nagusiak ateratzea eta haiek alderatzea oroitidazkian adierazitakoarekin.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Kanpoko Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditortzako printzipio eta arauak" aplikatu dira.

Finantza eta aurrekontu egoera-orriak berrikustean aplikatu dira aurreikusitako helburuak erdies-teko behar diren auditoria probak eta prozedurak, inguruabarren arabera. Prozedura horien artean, laginen teknika, kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa, erabili da.

Gainera, Nafarroako Comptos Ganbera honek eginiko berariazko fiskalizazio txosten hauek ere aintzat hartu dira:

- Foru Komunitateko administrazioaren eta udal administrazio orokorraren montepioei atxikitako langile pasiboen nominaren kudeaketa (2004ko ekitaldia).

- "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaleetako sare publikoaren zerbitzu orokorrak, 2004ko ekitaldia".

- Nafarroak Madrilan duen ordezkartzaren gastuei buruzkoa (2001etik 2004ra bitarteko ekitaldiak).

Era berean, Kontu-hartze Orokorraren Zerbitzuak egindako zenbait txosten erabili dira, eta Administrazio Kontrataziorako Batzordearen eta Herrilan Departamentuaren oroitidazkiak.

Esparru operatiboan, eta ikusirik nolako mugak zeuden –ikus IV.2 idatz-zatia–, gure lanaren jomuga izan da Gobernuan aplikatzen den aurrekontu

antolaketa, programakakoa, orokorrean aztertu eta oroitidazkian ageri den informazioarekin alderatzea.

IV.2. MUGAK

Gure lanean eragina izan duten mugak honako hauek dira:

- Ezin izan dugu ondorioz atera 2004ko baliabide publikoen kudeaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak lortu duen eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailari buruz, ez baitago aurrekontu-programetan informazio uniforme eta koherenterik sartu beharreko informazioaz, xedeen eta adierazleen definizioaz eta kalitateaz, horien jarraipenaz eta desbideraketen azterketaz. Kostuak kontabilizatzeko sistemarik ez dagoenez, ezin da zehaztu zein den oinarritzko zerbitzu publikoak ematearen kostua.

- Aurreko ekitaldietan bezala, Nafarroako Tributu Ogasunak ez dizkio Comptos Ganberari igorri zergen aitorpen gaineratuak, ez eta Ikuskatzailetza Zerbitzuaren jarduketaren laburpen-txostena ere. Aitorpen gaineratuei buruzko informazioz ez dagoenez, ezin dugu zerga gastuei buruzko aurreikuspenen betetze maila aztertu.

Nafarroako Tributu Ogasunak ondoko informazioa igorri digu alegazioak aurkezteko fasean –azaroaren 28ko data du ganbera honen sarrera erregistroan–:

a) Ikuskatzailetzaren 2004ko jarduketaren laburpen-txostena.

b) PFEZren 2003ko aitorpen bateratua.

b) PFEZren 2003ko aitorpen bateratua.

Jasotzeke daude sozietateen gaineko zergaren nahiz BEZaren aitorpen gaineratuak.

Honen aurreko informazioa igorri zein egunean igorri zen ikusita eta aitorpen gaineratu guztiak ez ditugunez, ganbera honek jasotako informazioa transkribatu baizik ez du egin txosten honen eranskin gisa.

V. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Nafarroaren 2004ko ekitaldiko kontu orokorrak aztertu ditugu. Kontuak prestatzeko ardura, baita haien edukiarena ere, Nafarroako Gobernuarena da, eta laburbilduta jasota daude txosten honen VI. atalean.

Gure jarduketaren ondorioz, ondoko iritzia atera dugu:

V.1. NAFARROAKO 2004KO KONTU OROKORRAK

1. Aurrekontu-betetzea

2002ko aurrekontuaren likidazioan azaltzen diren gastu eta diru-sarrerek zentzuz islatzen dute ekitaldi horretan Nafarroako Gobernuak eta bere erakunde autonomoek gauzatu duten jarduera, hurrengo salbuespenarekin:

- Osasun arloan 11,62 milioi euroko gastua hauteman da, horniduren kontratazioa dela-eta, ekitaldi honetan, 2004ko aurrekontu-likidazioari egotzi ez zaiona aurrekontu-kreditu nahikorik ez zegoelako eta tramitatu beharreko aurrekontualdaketa ez zelako tramitatu. Zenbateko hori, 2005eko aurrekontuan erregistratuko dena, farmako eta protesietatik heldu diren gastuei dagokie batik bat.

Gobernuak, aurreko ekitaldietakoekin koherenteak diren aurrekontu eta kontabilitate irizpideak aplikatuz, ekitaldiko zor publikoko jaulkipena eta kitapenaren zenbateko garbia islatu du; 65 milioi euroko amortizazioa eta zenbateko bereko jaulkipena izan dira.

2. Egoeraren balantzea

Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen egoera-balantze bateratuak Foru Ogasunaren 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren ezaugarriak nabarmenenak islatzen ditu, honako salbuespen hauekin:

- Ibilgetu materiala eta ez materiala. Ibilgetuaren saldoek ez dituzte behar bezala agertzen Nafarroako Gobernuaren jabetzako ondasunak, ondokoak direla eta:

a) Ez dituzte jasotzen mota horretako ondasun guztiak, eta ez dira aztertu, ezta kasua denean araztu ere, saldo historikoak.

b) Inbentarioa eta kontabilitateko datuak ez daude berdinkaturik.

c) Haien kontabilitate-tratamendu eta -aurkezpenak ez dira beti kontabilitate publikoaren printzipioen arabekoak.

- Tributuen arloko dirusarrerak eta zordunak Osatzeko dago Tributu Ogasunak ekitaldian erregistraturiko eskubideen eta kontabilitatean sortutako berdinkatze orokorraren prozesua.

- Gorabeherak. Ez dira jaso Nafarroako Gobernuaren funtzionarioen pentsio-sistemak sorrarazten dituen obligazio aktuariaren ondorioz dauden gorabeherak.

3. Ekonomia eta ondare emaitzako kontua.

Kontuko saldoa –28 milioi euroko defizit edo desaurrezkia– Nafarroako Gobernuak 2004an lortu zuen mota horretako emaitzaren isla da.

4. Oroitidazkia

2004ko ekitaldiko oroitidazkiak, txosten honi erantsirikoak, Nafarroako 2004ko ekitaldiko kontu orokorrak interpretatu eta oro har ulertzeko behar den informazioa eskaintzen du.

Gure ustez, 1. nahiz 2. ataletan adierazitako salbuespenen ondorioak kenduta, Nafarroako 2004. ekitaldiko kontu orokorretan ongi islaturik daude, alderdi adierazgarri guztietan, gastu nahiz dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, ondare egoera abenduaren 31n eta operazioen emaitzak, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraituz.

V.2. LEGEZKOTASUNAREN PRINTZIBIOA BETETZEA.

Eginiko lanak erakusten duenez, Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen jarduera, oro har, legezkontasunaren printzipioari jarraituz gauzatu da.

V.3. 2004ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

V.3.1. 2004ko aurrekontuaren likidazioa.

2004ko ekitaldirako Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde autonomoen hasierako aurrekontua 2.789 milioi eurokoa da. 161 milioi euroko aldaketa positiboak ditu (hau da, ehuneko 6koak), eta, bestetik, 2.808 milioi euroko betebeharrak aitortuak eta 2.724 milioi euroko eskubide aitortuak ditu.

Gastuen betetze-maila ehuneko 95ekoa da, eta dirusarrerena, berriz, ehuneko 92koa; gastuen ehuneko aurreko ekitaldiko bera da, eta dirusarrerena bi puntu txikiagoa.

Gastuen kapitulu ekonomikoen arabera, inbertsioen betetze maila –ehuneko 86– eta kapital-transferentziena –ehuneko 78– batez bestekoaren azpitik dago. Dirusarreretan, zuzeneko zergen kapituluaren betetze-maila –ehuneko 95– eta zeharkako zergena –ehuneko 97– batez bestekoaren gainetik dago.

Izaera ekonomikoa aintzat hartuta, honela banatzen dira, ehunekotan, likidazioko gastuak nahiz dirusarrerak:

Gastua	Zenbatekoa	Dirusarrera	Zenbatekoa
Transferentziak	53	Zeharkako zergak	50
Langileak	28	Zuzeneko zergak	42
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	9	Transferentziak	3
Inbertsioak	7	Tasak eta prezio publikoak	3
Bestelakoak	3	Bestelakoak	2
Guztira	100	Guztira	100

Gobernuaren gastuen aplikazioaren xede den funtzioaren ikuspegitik, halaxe banatzen dira, ehunekotan, gastuak:

Funtzioa	2004
Osasuna	23
Estatuaren zama orokorrak	17
Hezkuntza	16
Gizarte babesa	9
Azpiegiturak	8
Bestelakoak	23
Guztira	100

Aurreko ekitaldiko aurrekontu-likidazioari buruz, honako hau nabarmenduko dugu:

- Gastuak, guztira, ehuneko 4,45 igo dira; dirusarrerak, berriz, ehuneko 2,64 igo dira.
- Biztanle bakoitzeko gastu publikoa 4.650 eurokoa izatetik 4.802 eurokoa izatera iragan da; hau da, ehuneko 3,27 igo da.
- Biztanle bakoitzeko gastu arruntak ehuneko 5,78 egin du gora -3.734 eurotik 3.950 eurora-; inbertsio-gastuak, halere, ehuneko 1 egin du behera -812 eurotik 3.950 eurora-.
- Biztanle bakoitzeko presio fiskala 4.216 eurotik 4.337 eurora igo da; hau da, ehuneko 2,87ko hazi da.

2001eko euro konstantetan, ondoko taula honetan islaturik dago zein izan den aurrekontuko gastuen eta dirusarreraren bilakaera 2001etik 2004ra:

Eragiketak	2001	2002	2003	2004
Gastu arrunta	100	103	114	126
Dirusarrera arrunta	100	108	115	121
Kapital gastuak	100	106	102	107
Kapital dirusarrera	100	122	78	99
Finantza eragiketen gastuak	100	146	153	51
Finantza eragiketen dirusarrerak	100	107	113	138

Ikus daitekeen moduan, gastu arruntak modu jarraian igo dira, ehuneko 26 arte, laurtekoan, eta dirusarrera arruntak, berriz, ehuneko 21.

V.3.2. 2004ko emaitzak

2004ko emaitzak zehazterakoan kontuan izan behar da kontabilitateko hainbat sistema daudela, hainbat printzipio eta esparruren arabera definitzen direnak. Txosten honen eranskinean kontabilitate publikoko hiru emaitza-kontu moten azalpena eman dugu. Hona hiru emaitza-kontu motak:

- Aurrekontu-emaitzak 84 milioi euroko finantza-defizita jasotzen du; alegia, aurrekontuko dirusarreretan diru kopuru hori falta da aurrekontuko gastuak finantzatzeko. 2003ko ekitaldiarekin alderatuz gero, defizita ehuneko 144 igo dira.

Hona aurrekontu-emaitzaren xehetasunak:

Emaitza	(Euroak milioitan)	
	2003	2004
1. Aurrezki gordina *	428	333
2. Kapital defizita **	(426)	(426)
<i>Aurrekontuko saldo ez finantzarioa</i>	2	(93)
4. Finantza-aktiboen aldaketa ***	(36)	9
<i>Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza</i>	(34)	(84)
6. <i>Finantza-pasibo aldaketa ****</i>	-	-
<i>Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa</i>	(34)	(84)
8. Doikuntzak	Ez dago eskuragarri	Ez dago eskuragarri
<i>Finantziazioko superabita / defizita</i>	(34)	(84)

* Aurrezki gordina: Dirusarrera arruntak-gastu arruntak.

** Kapital-emaitza: Kapitalaren dirusarrerak-kapitalaren gastuak.

*** Finantza-aktiboen ondoriozko dirusarrerak - finantza-aktiboen ondoriozko gastuak.

**** Finantza-pasiboen ondoriozko dirusarrerak - finantza-pasiboen ondoriozko gastuak

Nafarroako Gobernuak ez ditu garatzen ez diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuei ez finantzabidea ezarria duten gastuei buruz kontabilitate publikoko plan orokorrean jasotzen diren egokitzapenak.

Nabarmentzekoa da Nafarroako Gobernuaren aurrezki gordinak ehuneko 22 jaitsi direla aurreko ekitaldiaren aldean eta horren azalpena da, funtsean, gastu arrunten hazkundea ehuneko 7koa izan dela, eta dirusarrera arruntena, berriz, ehuneko 2koa besterik ez. Horrenbestez, aurrezki gordi-

naren kopuru horrek ez du aukera ematen inbertsio- edo kapital-betebeharrak finantzatzeko, ezta finantza-aktiboetako eragiketak ere.

- Ekonomia- eta ondare-emaiztan 28 milioi euroko desaurrezkia izan da, aurreko ekitaldiko 74 milioiko aurrezkiaren aldean. Desaurrezki horrek berekin dakar ez dela ekonomia-dirusarrera nahi-ko izan Nafarroako Gobernuak ematen dituen zerbitzuak finantzatzeko.

Hona emaitza horren zehaztasunak:

(Euroak milioitan)			
Zor	Zenbatekoa	Hartzeko	Zenbatekoa
Hornidurak	118	Salmentak eta zerbitzuak ematea	2.542
Beste gastu batzuk, kudeaketa arrunta dela etea	971	Beste dirusarrera batzuk, kudeaketa arruntekoak	68
Transferentziak eta dirulaguntzak	1.479	Transferentziak eta dirulaguntzak	73
Ez-ohiko galera eta gastuak	163	Ez-ohiko irabazi et dirusarrerak	21
<i>Aurrezkia</i>	-	<i>Desaurrezkia</i>	28

- Emaitza kontabilitate nazionalako terminoetan.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren arabera, Nafarroako administrazio publikoen sektorean sarturiko entitateek (SEC'95eko terminoak erabiliz)

2004an kontabilitate nazionalako terminoetan 17 milioi euroko superabita edo finantzatzeko gaitasuna lortu dute.

Hona emaitza horren zehaztasunak:

(Euroak, milioitan)	
SEC'95eko terminoen araberako emaitza	Zenbatekoa
1. Administrazio publikoaren aurrekontuko saldo ez finantzarioa *	(94)
2. Aurreko saldoaren aurreko doiketak, SEC'95etik heldu direnak	109
3. Kontabilitate nazionalaren ondorioetarako administrazio publikotzat har daitezkeen beste unitate batzuen (enteak, enpresak eta fundazio publikoak) finantzatzeko gaitasuna edo beharra **	2
<i>Finantzatzeko gaitasuna</i>	<i>17</i>

* Nafarroako Gobernuaz gain, administrazio publikotzat hartzen diren gainerako erakundeak ere sartzen dira (erakunde publikoak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa)

** Kontabilitate nazionalaren ondorioetarako administrazio publikoaren sektoretzat hartzen diren enpresa publikoak

Estatuarekiko transferentzien saldo garbia eta dirusarrerak erregistratzean kontabilitate nazionalak darabilen irizpidetik heldu dira, batez ere, doikuntzak, bestelako irizpide bat erabiltzen baita.

V.3.3. Beste finantza-neurri batzuk

- Zor publikoa Zor publikoak 641,41 milioi euro egiten ditu 2004ko abenduaren 31n, aurreko ekitaldiko kopuru berbera; kopuru hori honela banatzen da: 503,18 milioi epe luzeko mugaegunarekin eta 138,24 milioi epe laburreko mugaegunarekin. Zorraren bolumen orokorra ⁽¹⁾ dirusarrera arrunten ehuneko 25 da; zorpetzea ehuneko 26koa da eta, gutxi gorabehera, biztanle bakoitzeko 1.141 euro egiten du.

Nafarroako Gobernuak aurrekontu arloko egonkortasun-konpromisoak bete ditu finantzatzeko gaitasuna lortzean eta urtearen hasierako zor publikoaren bolumena ez handitzean.

- Maniabrako funtsa. Gobernuak, 2004ko abenduaren 31n, maniabrako funts negatiboa dauka, 183,25 milioi eurokoa, aurreko ekitaldikoaren halako zazpi hain zuzen ere. Horrenbestez, 2004an, epe laburreko ordainketa-obligazioak –815,07 milioi euro– kobrantza eskubideak gehi diruzaintzan eskuragarri dagoena baino nabarmen gehiago dira –631,81 milioi euro–. Nabarmendu behar da 2004an maniobra funts negatiboa izan dela bigarren urtez jarraian.

V.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Araugintzaren arloan, nabarmena da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea onetsi izana. Berrikitan, Nafarroako Parlamentuak dirulaguntzei buruzko foru lege bat onetsi du, eta Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko Foru lege proiektua tramitatzen ari da.

2005eko azaroan, Kontratu publikoei buruzko Foru Lege proiektua onetsi du Nafarroako Gobernuak; horri buruz nabarmendu beharra dago ezen, Europako araudiarekin bat –2004ko martxoaren 31ko 2004/18/CE zuzentaraua–, han xedatutakoaren transposizioa 2006ko urtarrilaren 31 baino lehen egin behar dela Nafarroako ordenamendu juridikoan.

Indarrean dira ibilgetu-inbentarioari, zordunei eta kontingentzietan buruzko gomendio nagusiek. Orobat jo behar dira lehentasunezkoetat, batetik, Gobernuaren kontabilitatearen kudeaketa arautzeari buruzko kontabilitate-jarraibidez hornitzea eta, bestetik, hirugarrenen kontabilitate sistema berrikusi/gaurkotzea, halako moduz non ekonomianahiz kontabilitate-informazio guztia lortzen ahal den.

Programen arabera eginiko aurrekontuez eta eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiaren azterketaz esan beharra dago azterketa zorrotza egin beharko dela, erabaki-hartzearen prozesuaren beharretara eta, finean, kudeaketarenetara, aurrekontua eratzeko eta likidatzeko gaur egungo metodologia egokitzeari buruz.

Nolanahi ere, informazio edukia hobetzeko ahaleginean jarraitu beharra dago, bereziki gai hauetan: langileak, diruzaintza, tributu-sarrerak eta tributu-zordunak, inbertsio handiak, zergen aitortpen gaineratuak, gastu fiskalak eta kontabilitate nazionalaren emaitzak.

V.5. ERAGINKORTASUNA, EFIZIENTZIA ETA EKONOMIA

IV.2 atalean adierazitako mugak ezinezko egiten digu 2004ko ekitaldiko aurrekontu-betetzean oro har iritsitako eraginkortasunari, efizientziari eta ekonomiari buruzko balorazio orokorra egitea.

Kontu orokorren oroitidazkian –aurrekontu-betetzea departamentuka aztertzen denean, hain zuzen ere–, iruzkin batzuk egin dira programa jakin batzuen betetzeari buruz. Iruzkin horiek era askotakoak eta heterogeneoak dira, eta, oro har, ez da baloratzen helburu kuantitatiboen nahiz kualitatiboen betetzea, eta ez da gertatu diren desbideratzeen azterketarik egiten, halakorik gertatu denetan.

Horrenbestez, oroitidazkian bildutako informazioak, oro har, ez du posible egiten Nafarroako Gobernuko departamentuek kudeaketan erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiari buruzko balioespena egiterik; hori, bestalde, zaila da ebaluatzen, hark garatutako jardueren aniztasuna eta konplexutasuna ikusita.

Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruz onetsiko den foru legearen aplikazioa tresna egokia izan daiteke arestiko printzipioak betetzen ote diren egiaztatu ahal izateko.

(1) Zorra, guztira, eragiketa arruntetako eskubide aitortuak direla-eta

V.6. ONDOKO GERTAKARIAK

2005eko urrian, Europako Auzitegiak Espainia-ko Erresuma –eta horren-bestez Nafarroako Foru Ogasuna– kondenatu du “zergapeko operazioak bai-zik egiten ez dituzten subjektu pasiboek jasaten duten BEZaren kenkariaren hainbanaketa aurreikusteagatik eta dirulaguntzen bidez finantza-

tutako zerbi-tzuei edo ondasunen erosketari dagoen BEZaren kenketa egiteko eskubidea mugatzen duen arau berezi bat ezartzeagatik”. Foru Ogasuneko zerbitzuak kalkulu bat egiten ari dira, jakiteko zenbat diru itzuli beharko den epai hori aplikatzearen ondorioz; lehen kalkulu baten arabera, 60 milioi euro inguru itzuli beharko dira.

VI. 2004ko KONTU OROKORRAK OSATZEN DITUZTEN FINANTZEN EGOERA-ORRIEI BURUZKO LABURPENA

VI.1. 2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2004ko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Bateratua	Betetakoa	(eurotan)	
					Guzt. g/ %	Zenbateko bateratua
Langileen gastuak	801.718.800	8.911.280	810.630.080	802.774.776	28,59	99,03
Ondasun arruntetako gastuak	251.807.755	9.126.531	260.934.286	251.274.793	8,95	96,30
Finantza-gastuak	47.370.166	607.992	47.978.158	47.938.224	1,71	99,92
Transferentzia arruntak	1.117.302.381	104.307.709	1.221.610.090	1.207.578.586	43,00	98,85
Inbertsio errealak	252.188.153	-10.850.588	241.337.565	207.560.961	7,39	86,00
Kapital-transferentziak	296.632.020	50.020.601	346.652.621	271.652.238	9,67	78,36
Finantza-aktiboak	22.182.722	-1.540.487	20.642.235	19.352.930	0,69	93,75
Finantza-pasiboak	31.000	-25.000	6.000	0	0,00	0,00
Guztira	2.789.232.997	160.558.038	2.949.791.035	2.808.132.508	100,00	95,20

2004ko dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Bateratua	Betetakoa	(eurotan)	
					Guzt. g/ %	Zenbateko bateratua
Zuzeneko zergak	1.205.005.006	3.237.833	1.208.242.839	1.152.212.357	42,30	95,36
Zeharkako zergak	1.373.477.000	32.590.254	1.406.067.254	1.367.534.677	50,20	97,26
Tasak, prezioak eta bestelako dirusarrerak	61.377.313	16.361.780	77.739.093	72.219.604	2,65	92,90
Transferentzia arruntak	30.964.673	8.170.268	39.134.941	32.712.193	1,20	83,59
Ondare-dirusarrerak	43.384.918	1.027.046	44.411.964	18.382.928	0,68	41,39
Inbertsio errealen beste- rentzea	10.231.050	10.814.019	21.045.069	11.948.661	0,44	56,78
Kapital-transferentziak	40.591.647	14.099.209	54.690.856	40.273.974	1,48	73,64
Finantza-aktiboak	24.201.390	74.257.629	98.459.019	28.716.371	1,05	29,17
Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0,00	0,00
Guztira	2.789.232.997	160.558.038	2.949.791.035	2.724.000.765	100,00	92,35

VI.2. EGOERA-BALANTZEA, 2004ko ABENDUAREN 31n (eurotan)

AKTIBOA	2004ko ekitaldia	2003ko ekitaldia
A) IBILGETUA	1.591.717.114,33	1.539.195.921,46
III. Ibilgetu materialak	1.257.164.767,12	1.187.971.521,36
1. Lursailak eta eraikinak	811.171.459,91	774.173.739,76
2. Instalazio teknikoak eta makineria	43.405.666,86	41.243.613,65
3. Tresneria eta altzariak	221.181.992,14	204.285.959,35
4. Bestelako ibilgetua	181.405.648,21	168.268.208,60
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	334.552.347,21	351.224.400,10
1. Epe luzerako baloreen zorroa	265.054.225,42	265.054.225,42
2. Epe laburreko bestelako inbertsio eta kredituak	76.410.863,26	88.070.731,43
3. Epe luzerako eraturako fidantza eta gordailuak	25.699,76	25.699,76
4. (Hornidurak)	-6.938.441,23	-1.926.256,51
C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	631.813.053,01	651.457.055,61
I. Izakinak	5.706.637,76	4.323.771,11
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	5.706.637,76	4.323.771,11
II. Zordunak	163.628.610,20	229.512.800,23
1. Aurrekontuko zordunak	298.048.971,84	358.594.433,63
2. Aurrekontukoak ez diren zordunak	208.912,90	37.356,20
3. Beste ente publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko zordunak	576.020,30	128.941,39
5. Beste zordun batzuk	15.347.234,34	37.184.309,64
6 (Hornidurak)	-150.552.529,18	-166.432.240,63
III. Aldi baterako finantza inbertsioak	461.969.424,77	415.339.831,65
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	461.965.265,01	415.335.671,89
3. Epe laburrerako eraturako fidantza eta gordailuak	4.159,76	4.159,76
IV. Diruzaintza	508.380,28	2.280.652,62
Guztira, orokorrean(A+C)	2.223.530.167,34	2.190.652.977,07

PASIBOA	2004ko ekitaldia	2003ko ekitaldia
A) FUNTS BEREKIAK	879.691.782,32	907.793.004,29
I. Ondarea	873.627.856,62	760.614.758,13
1. Ondarea	873.627.856,62	760.614.758,13
III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	34.165.096,79	72.734.621,58
1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	34.165.096,79	72.734.621,58
IV. Ekitaldiko emaitzak	-28.101.170,90	74.443.624,58
C) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	528.772.800,87	605.100.231,88
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	503.174.871,04	576.407.654,50
1. Obligazio eta bonoak	503.174.871,04	576.407.654,50
II. Epe luzeko bestelako zorrak	25.597.869,34	28.692.516,89
2. Bestelako zorrak	24.850.443,97	27.884.646,27
4. Epe luzerako jasotako fidantza eta gordailuak	747.425,37	807.870,62
V. Akzioen gaineko ordainketa eskatu gabeak, egiteko daudenak	60,49	60,49
D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	815.065.584,15	677.759.740,90
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	138.232.783,46	65.000.000,00
1. Epe laburreko obligazioak eta bonoak	138.232.783,46	65.000.000,00
III. Hartzekodunak	676.832.800,69	612.759.740,90
1. Aurrekontuko hartzekodunak	668.065.646,83	597.110.414,00
3. Beste ente publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	3.393.602,48	2.975.999,36
4. Administrazio publikoak	2.020.129,35	1.787.371,22
5. Beste hartzekodunak	2.099.952,06	9.797.146,56
6. Epe laburrean jasotako fidantza eta gordailuak	1.253.469,97	1.088.809,76
Guztira, orokorrean(A+C+D)	2.223.530.167,34	2.190.652.977,07

VI.3. EMAITZEN KONTUA (eurotan), 2004ko ABENDUAREN 31n

ZORRA	2004ko ekitaldia	2003ko ekitaldia
A) GASTUAK		
2. Hornidurak	118.297.926,56	114.737.220,28
b) Ekitaldiko kontsumoak	114.498.761,90	111.290.190,81
c) Kanpoko beste gastu batzuk	3.799.164,66	3.447.029,47
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	971.286.927,26	905.767.991,59
a) Langileen gastuak.		
a.1) Soldatak eta ordainsariak	653.765.406,27	610.793.447,87
a.2) Gizarte zamak	112.734.209,31	111.145.990,70
b) Gizarte prestazioak	39.886.853,92	37.858.724,25
d) Trafiko horniduretako aldatetak		
d.1) Hornigaien bariazioa eta kobraezinak diren kredituen galerak	-15.846.702,77	-12.773.137,86
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk		
e.1) Kanpoko zerbitzuak	127.757.604,51	109.898.531,62
e.2) Tributuak	39.198,35	22.225,22
f) Finantza gastuak eta antzekoak		
f.1) Zorrek direla eta	47.938.172,95	48.003.911,11
g) Finantza-inbertsioen probisioen aldateta	5.012.184,72	818.298,68
4. Transferentziak eta dirulaguntzak	1.479.416.131,37	1.382.096.563,35
a) Transferentzia arruntak	1.207.763.893,38	1.126.064.065,11
c) Kapital-transferentziak	271.652.237,99	256.032.498,24
5. Ez-ohiko galera eta gastuak	162.698.257,19	155.346.570,68
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	870.002,87	0,00
c) Aparteko gastuak	123.173.350,10	132.735.242,28
d) Beste ekitaldi batzuetako gastu eta galerak	38.654.904,22	22.611.328,40
Saldo hartzekoduna (aurrezkia)		74.443.624,58
Zorrak, guztira	2.731.699.242,38	2.632.391.970,48

HARTZEKOAK	2004ko ekitaldia	2003ko ekitaldia
B) DIRUSARRERAK		
1. Kudeaketa arrunteko dirusarrerak	2.542.186.925,86	2.442.618.711,54
a) Tributu-dirusarrerak		
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	750.148.083,53	767.355.579,72
a.2) Sozietateen gaineko zerga	337.084.487,12	299.017.087,02
a.3) Oinordekotzaren eta dohaintzen gaineko zerga	22.681.435,92	21.162.708,63
a.4) Ondarearen gaineko zerga	42.273.759,82	38.318.459,89
a.9) Ondare-eskualdatzeen eta E.J.D.en gaineko zerga	110.058.074,83	94.690.933,68
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	828.942.136,08	801.029.703,15
a.11) Zerga bereziak	428.534.466,48	399.525.054,87
a.14) Balioak gaurkotzearen gaineko karga	24.590,64	0,00
a.15) Zerbitzugintzaren gaineko tasak	16.501.429,24	16.706.942,17
b) Gizarte kotizazioak	4.396.022,95	2.546.663,58
c) Zerbitzuak ematea.		
c.1) Zerbitzuak emateko prezio publikoak.	1.542.439,25	2.265.578,83
2. Kudeaketa arrunteko beste dirusarrera batzuk	67.708.429,52	109.420.408,73
a) Itzulketak	8.931.154,79	7.578.875,50
b) Salmentak eta zerbitzuak ematea	12.746.393,76	12.722.696,09
c) Kudeaketaren ondoriozko beste dirusarrera batzuk		
c.1) Dirusarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	28.677.565,72	24.886.229,85
d) Kapitaleko parte-hartzeengatiko dirusarrerak	7.497.963,13	52.599.489,34
e) Ingr. otr. val. negociables y de ctos. del activo inmovilizado	0,00	686.130,49
f) Beste dirusarrera finantzario batzuk		
f.1) Beste interes batzuk	9.838.319,34	10.930.379,21
f.2) Inbertsio finantzarioetako mozkinak	17.032,78	16.608,25
3. Transferentziak eta dirulaguntzak	72.969.134,54	71.755.166,85
a) Transferentzia arruntak	32.730.513,72	35.110.344,06
b) Kapital-transferentziak	40.238.620,82	36.644.822,79
5. Ez-ohiko irabazi eta dirusarrerak	20.733.581,56	8.597.683,36
a) Ibilgetutik heldu diren mozkinak	1.469.724,80	2.760.115,31
c) Aparteko dirusarrerak		
d) Beste ekitaldi batzuetako dirusarrerak eta mozkinak	19.263.856,76	5.837.568,05
Saldo zorduna (desaurrezkia)	28.101.170,90	
Hartzekoa, guztira	2.731.699.242,38	2.632.391.970,48

VII. NAFARROAKO KONTU OROKORRETA-KO OROITIDAZKIAREN INFORMAZIO OSAGARRIA ETA LAN IRUZKIN BERARIAZKOAK

Ondotik aurkezten dira kontu orokorren txostena eta oroitidazkia hobeki ulertzen laguntzeko garrantzitsutzat jotzen diren iruzkin orokorrak, bai eta egindako lan berariazkoen ondoriozkoak diren beste batzuk ere.

VII.1. PARLAMENTU-ERAKUNDEAK

Nafarroako kontu orokorretan ondoko parlamentu-erakundeen kontuak sartzen dira: Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Arartekoa eta Nafarroako Comptos Ganbera.

Kontu horiek Comptos Ganberak berrikusi ditu, eta haien guztien aldeko iritzia eman du.

Ondokoak dira 2004ko aurrekontu-gastuak eta -dirusarrerak:

Parlamentu-erakundeak	(euroak, milakotan)	
	Gastuak	Dirusarrerak
Parlamentua	7.920	9.652
Arartekoa	900	909
Comptos Ganbera	1.766	2.123
Guztira	10.586	12.684

Gastuen izaera ekonomikoa funtsean arrunta da; dirusarreraren iturri nagusia, berriz, transferentziak dira. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 3 igo dira horien gastuak, eta dirusarrerak, berriz, ez dira ia-ia aldatu.

2004an ondoko langileak izan dituzte, goi karguak eta behin-behineko langileak barne, parlamentu-erakunde horiek:

Parlamentu-erakundeak	langileak
Nafarroako Parlamentua	76
Arartekoa	11
Comptos Ganbera	31

Erakunde hauek finantza-egoera egokia dute; epe luzeko zorpetzea ia deuseza da, ekonomia-funts orokor positiboa 2,50 milioi eurokoa izan da, eta maniobra funts orokorra 0,86 milioi eurokoa.

VII.2. FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIO OROKORRA ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOAK

VII.2.1. Langileak

Ondoko taulan eman ditugu 2003 eta 2004ko ekitaldietako langileen aurrekontu-gastuak, aurrekontu-kontzeptuaren arabera sailkatuta:

Aurrekontu-kontzeptua	2003	2004	Aldaketaren % 04/03
Goi karguak	1.942	2.706	39
Behin-behineko langileak.	5.288	5.423	2
Ordainsari finkoak, funtzionarioak	416.062	440.239	6
Langile finkoak	3.318	3.089	(7)
Aldi baterako lan kontratudunak	146.695	159.824	9
Bestelako langileak	91	106	16
Gizarte kuotak	90.497	97.913	8
Gizarte prestazioak	37.971	39.956	5
Gastu sozialak	20.664	14.774	(28)
Produktibitatea	1.993	2.280	14
Lansari aldakorak	31.757	36.465	15
1. kapitulua, guztira	756.278	802.775	6

Datu hauek aztertuta, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

- 1. kapituluko gastuek, ekitaldiko gastuen aurrekontuaren guztizkoan, ehuneko 29 egiten dute, eta 2003an, aldiz, ehuneko 28.

- 2004an, aurrekontuaren igoera orokorra ehuneko 6koa izan da –46,5 milioi euro–. 2003an, ehuneko 9koa izan zen.

- Kontzeptu aipagarrienak funtzionarioen ordainsariak –langile-gastuen ehuneko 55 egiten dute– eta aldi baterako lan kontratudunen ordainsariak –gastuen ehuneko 20 egiten dute– izan dira.

- Ondoko aldaketak nabarmentzen dira, duten garrantzia kuantitatiboa dela eta:

a) Goi karguen ordainsarien igoera –ehuneko 39–, Nafarroako 2004rako aurrekontu orokorre buruzko Foru Legeko 8.1 artikuluan xedatua aplikatzearen ondorio dena.

b) Aldi baterako lan kontratudunen gastuen igoera; izan ere, ehuneko 9 egin du gora –13,1 milioi euro–.

c) Gizarte gastuen jaitsiera –ehuneko 28–, batik bat zor zaiona ekitaldiko KPlaren desbideraketatik heldu den konpentsazio-ordainsari txikiagorari.

- Azpimarratu beharrekoa da, halaber, produktibitate ordainsariek langile-gastuen guztizkoan

daukaten garrantzi eskasa: ehuneko 0,3 egiten dute.

- Departamentuka, nabarmentzekoak dira Osasun Departamentua –langileen gastuen ehuneko 43–, Hezkuntza Departamentua –ehuneko 32– eta Lehendakaritza Departamentua –ehuneko 13–.

Ondoko tauletan adierazten da, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak igorri duen informazioari jarraikiz, zenbat langile zegoen jardunean ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuan. Hori baino lehen, nabarmendu beharra dago ez direla jaso sei hilabetetik beheitiko iraupeneko aldi baterako kontratuak, eta behin-behineko langileak –kontseilariak eta kabineteko langileak– funtzionarioen taldean sartuta daudela.

Langile mota	2003	2004
Funtzionarioak	14.092	14.047
Behin-behineko funtzionarioak	106	80
Aldi baterako lan kontratudunak	5.955	5.895
Estatutupekoak	460	393
Guztira	20.613	20.415

2004ko abenduaren 31n 20.415 langile ari ziren administrazioaren zerbitzuan, eta horietatik ehuneko 29k zeukan aldi baterako kontratua. 2003arekin alderatuta, jaitsi egin da langile kopurua, tipologia guztietan jaitsi ere.

Hona organigraman non sartzen diren:

Langile mota	Administrazio Erroa		Hezkuntza		Osasuna	
	2003	2004	2003	2004	2003	2004
Funtzionarioak	4.821	4.371	5.027	5.063	4.244	4.613
Behin-behineko funtzionarioak	106	80	-	-	-	-
Aldi baterako lan kontratudunak	965	1.131	2.164	2.198	2.826	2.566
Estatutupekoak	-	-	-	-	460	393

Datu hauek aztertuz gero, ondokoa ikusten dugu:

- Ehunekotan, langileen ehuneko 27 kokatzen da Administrazio Erroan, ehuneko 36 Hezkuntzan eta ehuneko 37 Osasun Departamentuan.

- Aldi baterako langileen indizea bereziki nabarmena da Hezkuntzan eta Osasun Departamentua, langileen ehuneko 30etik gora hartzen baitute.

Langile pasiboei dagokienez, 2004ko abenduaren 31n 2.482 onuradun zeuden, eta haien presztazioek 39,8 milioi euro egiten zuten.

VII.2.2. KONTRATAZIOA

A. Arau esparrua.

2004ko ekitaldian eta txosten hau idatzi den egunera arte, kontratazio administratiboari buruzko araudian, funtsean, ondoko gaiak sartu dira:

- Nafarroako toki araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2003 Foru Legea; hartara, Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko Foru Legeko hamargarren xedapen gehigarrian xedatua betez, Nafarroako toki entitateek beren kontratuko jardueran dituzten berezitasunetara egokitu da Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legea.

- Apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretuaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailen Borondatezko Erregistroa arautu zen, lehia-kortasuna errazteko eta administrazioaren kontratazio prozedurak arintzeko kontratazio-tresna lagungarri gisa.

- Apirilaren 19ko 173/2004 Foru Dekretuaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren organoei banatu zitzaizkien hornidura eta zenbait laguntza kontratu egiteko eskumenak

- Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ekainaren 25ean eman zuen 217/2004 Foru Aginduaren bitartez, zenbait ondasun zentralizatuak deklaratu ziren, Foru Komunitateko administrazioaren departamentu guztiek komunean erabil zitzaizten eta haien erosketa Ekonomia eta Ogasun Departamentuak sinatzen dituen kontratu markoen babesean egin zedin Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiarekin kontratazio zentralizatuaren sistemari atxikitzeko hitzarmena sinatu zuen zenbait ondasunen hornidura egiteko, eta horien hornidura ere zentralizatu dela deklaratu zen.

- Otsailaren 28ko 50/2005 Foru Dekretuaren bitartez. Horren bidez, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeak ezarritako zenbatekoak

–kontratu-esleipeneko prozeduren arloan aplikatzeak diren mugei dagokienez, zein zenbateko-tatik aurrera egin behar den publizitatea Europar Erkidegoan– egokitzen zaizkio Europar Batasunak ezarritakoari.

Hala eta guztiz ere, ondoko oinarritzko alderdik oraindik ere garatzeko edo arautzeko daude:

- Nabarmentzeko modukoa da 2004. urtean onetsi eta indarra hartu zuela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/18/CE Zuzentarauak, zerbitzu, hornidura eta obren kontratu publikoak adjudikatze prozedurak koordinatzeari buruzkoak, arlo horretan indarrean zeuden zuzentarauak ordeztu baitzituen.

Zuzentaru berri horrek funtsezko helburu bat du; alegia, Europar Batasuneko estatu kideetan lehia askearen printzipioa hedatzea, bai eta tratu berdin-tasunerakoa, diskriminazio ezarena, elkarrekiko aintzatespenarena, heinekota-sunarena eta gardentasunarena ere, bide ematen baitiote lehia askearenari kontratazio publikoaren esparruan.

Helburu hori lortze aldera, Europar Erkidegoko administrazio prozedurei lotu beharreko administrazio eta entitate publikoen kontzeptua zabaltzen du, “adjudikatze ahalmena” duen edozein subjekturaino, baldin eta, zein eite juridiko duen gorabehera, publikotzat katalogatzeko baldintza jakin batzuk betetzen baditu; kontratazio teknika eta prozedura berriak ezartzen ditu kontratazio publikoak zaluagoa eta malguagoa izan dadin eta kontratazioaren esparruan teknologia berriak erabiltzearen alde egiten du argi eta garbi.

Zuzentaru horren 80. artikuluan xedatuarekin bat, estatu kideek beharrezkoak diren xedapenak onetsi eta indarrean jarri beharko dituzte, zuzentaruaren xedatzen dena “beranduenez ere 2006ko urtarrilaren 31n” betetzeko, eta jarraian Batzordeari eman beharko diote horren berri.

Horrenbestez, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1983 Lege Organikoko 49.1.d) artikuluan xedatuari jarraikiz Nafarroako eskumen osoa duenez administrazio kontratu eta kontzeso-oen gainean, Foru Komunitateak egun hori heldu baino lehen onetsi beharko luke, gure ustez, kontratuei buruzko beste foru lege bat, Foru Komunitateko ordenamendu juridikoan jasotzeko 2004/18/CE Zuzentarauak ezarritakoa, bai eta bestelako figura batzuk ere, hala nola obra publikoak esleitzeko kontratua, estatuko legerian bai baina foru-legerian ez baita jasotzen.

2005eko azaroan, Nafarroako Gobernuak Kontratuei buruzko Foru Lege proiektua onetsi du, eta

Nafarroako Parlamentuan tramitatzeko dago. Urtearen zein egunetan gauden ikusita, gure ustez zaila izanen da 2004/18/CE Zuzentza-erakundearen ezarritakoa –haren edukiaren transposizioa 2006ko urtarrilaren 31 baino lehen egitea– bete ahal izatea.

- Ekainaren 23ko 150/2003 Foru Dekretuak dioen bezala, egiteko geratu da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren sozietate publikoen arteko merkataritza harremanei dagozkien oinarritzko alderdien garapena.

B. Kontratuen arloko jardura

Kontratuen Erregistroan jasota dauden datuen arabera, 2004ko ekitaldian 1.264 kontratu izenpetu

dira, eta adjudikazioaren zenbateko osoak 154,10 milioi euro egin du. Aurreko ekitaldiaren aldean, kontratuen kopuruak ehuneko 45 egin du gora –391 kontratu–; adjudikatutako kopuruak, berriz, ehuneko 12 egin du behera –20,2 milioi euro–.

Kontratu kopuruari eta zenbatekoari erreparatuta, Osasun Departamentua nabarmendu behar da, ehuneko 59 eta 63arekin, hurrenez hurren. Industria Departamentua da kontratu gutxien formalizatu duena, bai kopuru aldetik –4 kontratu– bai zenbateko aldetik –0,2 milioi euro–.

Kontratu motari dagokionez, berriz, 1.264 kontratu horiek honelaxe daude banaturik:

Kontratu mota	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa
Obrak	103	8	34.984	23
Hornigaiak	693	55	61.842	40
Laguntza, aholkularitza eta zerbitzuak	456	36	56.890	37
Besterik	12	1	387	-
Guztira	1.264	100	154.103	100

Esleipen prozedurei erreparatuta, aurreko kontratuak honela daude banatu-rik:

Prozedura	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa
Irekia	799	63	112.388	73
Murritzua	23	2	4.282	3
Negoziatua	442	35	37.433	24
Guztira	1.264	100	154.103	100

Eta adjudikazio moduen arabera, hona:

Modua	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa
Enkantea	8	1	4.860	3
Lehiaketa	814	64	111.810	73
Negoziatua	442	35	37.433	24
Guztira	1.264	% 100	154.103	% 100

Arestiko taula horiek kontuan hartuz, ondokoak azpimarratu nahi ditugu:

a) Hornidura kontratua da kontratu moten artean aipagarriena, bai kopuru aldetik bai zenbatekoaren aldetik:

b) Adjudikazio prozeduren artean, prozedura irekia da administrazioak gehien erabilitakoa, bai zenbatekoaren aldetik bai kopuru aldetik.

c) Lehiaketa da Gobernuak gehien darabilen adjudikazio modua. Orobat aipatzekoa da enkan-tearen pisu erlatibo laburra.

Azkenik, ondoko puntu hauek zehaztu behar ditugu Kontratuen Erregistroa dela eta, haren urteko txostenean adierazten den bezala:

- Departamentuetan antzeman daiteke, alde batetik, atzerapena izaten dela kontratua egiteari berari buruzko dokumentazioa igortzerakoan; bestetik, ez da kontratuen aldaketei eta likidazioei buruzko informaziorik igortzen.

- Foru administrazioa kontratuei buruzko estatuko legean ezarritako kontratazio sistema zentralizatuari atxikitzearen ondorioz, bide horretatik 2004an 1,42 milioi euroko hornidurak eskuratu dira, baina horiek ez dira sartu Kontratuen Erregistroan, haien adjudikazioa ez baitu foru administrazioak egin.

C. Kontratazio batzordearen 2004ko oroitidazkia.

Laburbilduz, Kontratazio batzordeak ondoko jarduerak egin ditu 2004an, esleitu zaizkion funtzioekin bat etorriz:

a) Batzordearen hiru osoko bilkura.

b) Arbitraje-batzordearen bilkura bat, obra-kontratu bat aldatzeko espedienteko prezioak ezartzeko.

c) Hiru txosten, zenbait erakunde publikoren kontsultarako eginak.

d) Kontratazioaren alorreko hiru zirkular eta jarraibide, eta zenbait enpresarekin kontratua egiteko debekuari buruzko hiru komunikazio.

e) Lizitatzailen Borondatezko Erregistroa; azpimarratzekoa da 2004ko abenduaren 31n 132 enpresa zeudela izena emanda aipatu erregistroan.

f) Arauen garapena: Kontratazio alorreko araudiko zenbait zirriborri buruzko azterlan eta txostenak.

g) Kontratuen erregistroa.

VII.2.3. Transferentzien ondoriozko gastuak

2004ko aurrekontu-likidazioaren arabera, transferentzien ondoriozko gastuak 1.479,23 milioi euro egiten dute, aipatu ekitaldiko gastu osoaren ehuneko 53 alegia. 2003arekin alderatuz gero, gastuak ehuneko 7 igo dira.

Ondoko taulan agertzen da zein izan den 2004ko transferentzien zenbateko osoa, hartzaileen sektoreen arabera.

(euroak, milakotan)				
Hartzailea/transferentzia	Arruntak	Kapital gastuak	Guztira	Guztiaren %
Estatuko administrazioa	485.087	-	485.087	33
Foru Komunitateko fundazioak	2.236	6.823	9.059	1
Enpresa publikoak	36.278	1.539	37.817	3
Beste entitate publiko batzuk	66.522	8.420	74.942	5
Udalak eta kontzejuak	183.389	88.488	271.877	18
Enpresa pribatuak	24.904	104.718	129.622	9
Familiak eta partikularrak	198.682	43.234	241.916	16
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	210.480	18.430	228.910	15
Guztira	1.207.578	271.652	1.479.230	100

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak emandako dirulaguntzen

ondoko lagina aztertu dugu, departamentuak emandako dirulaguntzen ehuneko 26 egiten baitu.

(euroak, milakotan)		
Kontusaila	Zenbatekoa	Ezaugarria
“Un año en la luna” filmerako dirulaguntza	120	Izenduna
Zine sorkuntzarako laguntzak	220	Urteroko deialdia
Entitate artistiko eta kulturekiko hitzarmenak.	603	Urteroko deialdia
Hitzarmenak zenbait entitaterekin	3.722	Izenduna
Kultur etxeak eraiki eta hornitzea	1.913	Urteroko deialdia
Guztira	6.578	

Oro har, dirulaguntzei buruzko araudia betetzen dela ikus daiteke, baina ondoko oharrak egin behar dira:

a) Deialdi bidezko dirulaguntzetan, kultur eta arte entitateendakoetan zehazki, ikus daiteke ezen hautapen-irizpideak ez direla zehatzak eta txosten teknikoek ez dutela behar adina justifikatzen ez emandako puntuazioa ez emanen den dirulaguntzaren zenbatekoaren kalkulua ere. Onuradunak hitzartu diren betebeharrak zenbateraino bete dituen jakiteko txosten idatzirik ere ez dago.

b) Orobat ikusten da urteko deialditik kanpoko zenbait dirulaguntza eman zaizkiela kultur entitatei, eta hortaz, dirulaguntza horiek ez direla publikizitate, lehia eta objektibotasun printzipioei jarraikiz eman. Departamentuak dirulaguntza horiek eman

izana justifikatzen du esanez urteko deialdiak ez zuela kontusaileko aurrekontu-kreditua agortu; diruz lagundutako jarduera eginik dagoenean egiten dira tramiteak nahiz kontzesioa.

c) Dirulaguntza izendunetan ez da beti egiten onuradunak hitzartu diren betebeharrak zenbateraino bete dituen jakiteko txosten idatzia.

VII.2.4. Tributuen arloko dirusarrerak eta zordunak

A. Aitorturiko eskubideak

Ondoko taulan agertzen dira 2004an aitorturiko eskubideak, zuzeneko eta zeharkako zergenak, tasenak eta prezio publikoenak, eta haien alderaketa aurreko urtekoekin:

(euroak, milakotan)			
Kontzeptua	Dirusarrerak, 2003	Dirusarrerak, 2004	Aldaketa, %
BEZa	801.030	828.942	3
PFEZa	767.355	750.148	(2)
Zerga bereziak eta bestelakoak	399.525	428.559	7
Sozietateak	299.017	337.084	13
Ondare Eskualdaketak eta Egintza Juridiko Dokumentatuak	94.691	110.058	16
Ondarea	38.318	42.274	10
Oinordetzak eta dohaintzak	21.163	22.681	7
Zuzeneko eta zeharkako zergak, guztira	2.421.099	2.519.747	4
Tasak	16.707	16.501	(1)
Salneurri publikoak	13.998	13.605	(3)

(*) Ez-egoiliarrik sarturik daude

Zergak direla-eta aitorturiko eskubideek 98,6 milioi euro egin dute gora 2003ko ekitaldiaren aldean –hau da, ehuneko 4–.

Zuzeneko zerga guztiak (sozietateen, oinordetzen eta ondarearen gainekoak), PFEZa izan ezik, igo dira 2004an, bereziki sozietateen gainekoa; zeharkakoetan ere denek egin dute gora, bereziki BEZak, ehuneko hiru igo baita. Tasek eta prezio publikoek, berriz, 0,6 milioi euro egin dute behera.

PFEZari buruz adierazi beharra dago aldatu egin dela alargun pentsioengatik kenkariak egozteko irizpidea, eta, ondorioz, zerga hori dela-eta 2004an aitortutako eskubideak 12,7 milioi euro jaitsi direla. Jaitziera hori da, batez ere, atal honen hasieran adierazitako eskubide aitortuen jaitzieren arrazoia.

B. Tributu-zordunak

Tributu-zordunei 2004an zegozkien eragiketa guztiak honela laburbil daitezke, kontabilitate laguntzailearekin bat:

Kontuak	()	
	Saldo positiboak	Saldo negatiboak
PFEZa	17.134	7.476
Sozietateak	28.417	5.058
Ondarea	445	797
Oinordetzak	1.304	889
Ondare eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak	3.915	1.546
BEZa	17.709	341.587
Zerga bereziak	3.296	629
Garraioa	708	98
Hidrokarburoen txikizkakoak	995	8
Tasak	2.299	353
Geroratzeak eta zatiketak	47.768	471
Agentzia exekutiboa	140.800	582

(*) Ez-egoiliarak sarturik daude

BEZa zor dutenei buruz adierazi beharra dago ezen arestiko lerrokadan adierazitako saldo positibo eta negatiboetatik kendu dela zergadun batek zergaldien artean konpentsatu beharreko zenbatekoa, osotara 43,6 milioi euro.

- Preskripzio, barkamen eta beste arrazoi batzuegatik 2004an 15,5 milioi euroko eskubideak deuseztatu dira. Kopuru horretatik, ondorengo hauek azpimarratuko ditugu:

(euroak, milakotan)	
Kontzeptua	Zenbatekoa
Ekitaldiko sortzapenak	2.376.312
Doikuntzak	- 2.938
Preskripzioak	-15.499
Kobrantsak	3.031.823
Itzulketak	- 576.561
Gerorapenak	76.125
Premiamenduzko bidera aldatuak	31.644
Zatiketak	9.451
Egoera berezietara aldatuak	7.292

Doikuntzak zordunen kontuen erregularizazioei dagozkie, ekitaldi honetan zuzendu diren aurreko ekitaldietako sortzapenei hain zuzen ere.

2004ko abenduaren 31n, Foru Ogasunaren aldeko zorrak –saldo positiboak– eta zergadunaren aldekoak –saldo negatiboak– funtsean ondoko kontzeptuei dagozkie:

a) Administrazioak ofizioz deuseztatzen du ehuneko 84, eta ehuneko 16 alde batek eskatuta deuseztatzen da.

b) Zordunen ehuneko hiruk preskribitu den zorraren ehuneko 35 hartzen dute.

b) Deuseztatu den zenbatekoaren ehuneko 94 agentzia exekutiboko zorra da.

d) Deuseztatutako eskubide horiek 1988tik gaur arte alta emaniko sortzapenei dagozkie, eta

ehuneko 70 inguru 1994tik 1999ra bitartekoak dira.

- Tributu Ikuskapenerako Zerbitzua Ikuskapenaren 2004ko emaitzei buruzko informaziorik ez dagoenez –ikus txosten honen IV.2. atala– kontabilitatean jaso diren jarduketak azalduko ditugu soilik. Lansari horiek 11,5 milioi euro egin zuten 2004an. Jatorriaren arabera, zenbateko horren ehuneko 31 PFEZari dagokio, ehuneko 30 tributu-zehapenei, ehuneko 15 hidrokarburoen txikizkako-ei, ehuneko 11 sozietateen gaineko zergari eta ehuneko 10 BEZari.

C. Aseguru primen gaineko zerga.

Aseguru primen gaineko zergaren kudeaketa berrikusi da ekitaldi honetan.

Zerga hori Neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko abenduaren 30eko 13/1996 Legearen bidez ezarri zen. Nafarroan ez dago zerga horri buruzko arau berariazkorik, eta horrenbestez Hitzarmen Ekonomikoaren 37. artikulua aplikazioz ordainarazten da. Hona haren ezaugarri garrantzitsuenak:

a) Zeharkako tributua da, Nafarroako lurraldean egindako aseguru eta kapitalizazio operazioak kargatzen dituena.

b) Subjektu pasiboak aseguru-entitateak dira, zergak kargatutako operazioak egiten dituztenean.

c) Kargatutako eragiketen primak ordaintzen diren unean sortzen da zerga.

d) Zergaren tasa ehuneko 6koa izanen da.

e) Autolikidazioa eta ordainketa: hilero ordaintzea eta urteko laburpena eskatzen dira.

Egindako azterketatik honako hau nabarmenduko dugu:

- Zerga hori dela-eta 2004ko aurrekontu-likidazioan onartutako eskubideek 15,2 milioi euro egiten dute –aurkeztutako 96 aitorpenei dagozkienak–; ehuneko 4,5 igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Ondoko taulan azken lau urteotako bilakaera ikusten da:

(euroak, milakotan)	
Ekitaldia	Zenbatekoa
2001	12.293
2002	12.602
2003	14.509
2004	15.156

- Ez dago informatikako programa berariazkorik zerga kudeatzeko.

- Nafarroan ez dago hileko aitorpen-likidazioa egiteko eredurik, ordainketa-gutuna baizik ez dago. Badago urteko aitorpena egiteko eredia.

- Kutxa-irizpideari jarraikiz kontabilizatzen da, eta horrenbestez, ekitaldiaren amaieran ez da jasota ageri zergaren zordunik.

- Hileko ordainketa-gutunak eta urteko aitorpena –behin hori grabatuta– erkatzera mugatzen da berrikusketa. Halere, berrikusketa lan hori mugatuta dago; izan ere, ez dago zergadunen erroldarik, eta zergadunak ez daude behartua zergaldi guztiak aitortzera; gainera, aipatu zergadun ia-ia guztiak egiteko egoitza soziala Nafarroatik kanpo, eta hori beste oztopo bat gehiago da Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuak jardun ahal izateko.

VII.2.5. Diruzaintza

Ondoko taulan azaltzen da ondare masa horren balantze-saldoa:

(euroak, milakotan)		
Diruzaintza	2003-12-31	2004-12-31
Diruzaintza	2.281	508
Aldi baterako inbertsio finantzarioak	415.340	461.970
Justifikatu beharreko funts libratuak	289	529
Guztira	417.910	463.007

Egindako lanetik, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

- Nafarroako Gobernuaren izenean irekitako kontu korronteen nahiz bestelakoen kopuruari buruz, ondokoa adierazi beharra dago:

a) Diruzaintza Atalak 32 kontu korronte eta aldi baterako finantza-inbertsioen 22 kontu kontrolatzen ditu zuzenean guztira. Kontu korrontek

gobernuaren ordainketa eta kobrantzak zentralizaten dituzte batez ere. Kontu korronte eta inbertsio kontu horien saldoa da egoera-balantzean egokiro islatzen dena.

b) Horiez gain, atalak badu Diruzaintzako Erregistroa, ondoko kontuak jasotzen dituena:

Kontu kontzeptua	Zenbatekoa	Itxitakoak	Zabalik
Justifikatu beharreko ordainketa aginduak	22	3	19
Kutxako aurrerakinak	69	3	66
Beketarako berezia	10		10
Giz. Ong. Dep. haurtzaindegiak	4		4
Eskoletako gastuak	17		17
Eskoletako dirusarrerak	9	1	8
Eskola jantokia	76	1	75
Kudeaketarako bereziak	254	7	247
Tasak eta tarifak	103	5	98
Departamentuaren beste kontu batzuk Hezkuntza	8		8
Departamentuaren beste kontu batzuk Gizarte ongizatea	13	1	12
Departamentuen beste kontu batzuk	17	1	16
Kontu bereziak	27		27
Guztira	629	22	607

Erregistro horrek kontuen irekierari eta sinadura aldatetei nahiz kontuen ixteari buruzko datuak, zentroek jakinarazten dizkietenak, islatzen ditu. Ez dago ez mugimenduei saldoei buruzko informaziorik, eta horiek ez dira abenduaren 31ko egoera-balantzearen parte.

Kontu horietariko gehienak –420– Hezkuntza Departamentuarenak dira, departamentuak araudi bereki bat baitu jantoki- eta kudeaketa-kontuen jardunbidea arautzeko. Orobat dute araudi berekia tasa eta tarifen kontuek eta justifikatu beharreko funts libratuek.

Gainerako kontuei dagokienez, ez da beti edukitzen haien identifikazioari, xedeari, funtzionamenduari eta sinadurei buruzko informazioa.

c) Bankuko berrespenean beste kontu batzuk hauteman dira, arestiko erregistroan kontrolatuta

ez daudenak; horietako batzuk saldo adierazgarriak edo saldo deuseza dute.

- Justifikatu beharreko funts libratuetan, 2004a ixteko foru aginduak aurreratu egin zituen zenbaterakoak justifikatzeko eta aplikatu gabeko funtsak itzultzeko data, bai eta horiek ingresatzeko moduaren aldaketa ere. Aldaketa horiei esker hobetu da abenduaren 31ko saldoen kontabilitate-islak; hain zuzen, Kontabilitate Atalak ez ditu formalizatzen itzuli gabeko funtsen jarraipen eta kontrol jarduerak, eta zentro arduradunek ez dute atal horretara igorri aipatu foru aginduan eskatzen diren frogagiriak.

VII.2.6. Hitzarmen ekonomikoa

Hitzarmen ekonomikoarekin loturiko gastuak eta dirusarrerak, 2004ko ekitaldian eginikoak, hauexek dira, laburbildurik:

Kontzeptua	(euroak, milakotan)	
	Dirusarrerak	Gastuak
Estatuko tributueta partaidetza	61	
BEZaren doiketa	218.479	
Hidrokarburoen doiketa	(34.707)	
Tabakoen doiketa	40.966	
Alkoholaren eta tarteko produktuen doiketa	(51.673)	
Garagardoaren doiketa	(1.127)	
Karga orokorren ekarpena		485.087
Guztira	171.999	485.087

Zenbateko horiek 2004ko ekitaldirako behin-behineko likidaziotik nahiz 2003ko ekitaldiko behin betiko likidazioaren doiketetatik heldu dira.

VII.2.7. Gorabeherak

Finantzen egoera orrietan eragina izan dezaketen gorabeherari dagokienez, hauexek nabarmenduko ditugu:

- 2003an martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea onetsi zen, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzkoa. Egoera balantzeak ez du agertzen langile pasiboek honezkeror sortutako prestazioen egungo balioa, ez eta lanean ari diren langileen etorkizuneko konpromiso aktualak ere.

- Lehendakaritza Departamentuak emandako informazioaren arabera, 2004ko ekitaldian 1.269 gai sartu dira Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoan –aurreko urtean baino ehuneko 2 gutxiago–. Bereziki nabarmentzekoa da haietatik ehuneko 72 administrazioarekiko auzien arlokoak direla, ehuneko 15 arlo zibil-penalekoak eta ehuneko 10 lan arlokoak. Balizko gorabeherak eta aurreko afera horiek urteko kontuetan izan dezaketen eragina ezin da zenbatetsi.

Dena dela, aholkularitza horrek berak emandako informazioaren arabera, 2004an 1.298 epai eman dira guztira —jatorria urte horretan nola aurreko urteetan dutena—: horietatik 872 epai Nafarroako Gobernuaren aldekoak izan dira —12 milioi euroko ondorio ekonomiko positiboarekin— eta kontrakoak 426 izan dira —6,6 milioi euroko zenbatekoarekin—.

- 2005eko urriaren 6an, Europako Auzitegiak Espainiako Erresuma —eta horrenbestez Nafarroako Foru Ogasuna— kondenatu du “zergapeko operazioak baizik egiten ez dituzten subjektu pasiboek jasaten duten BEZaren kenkariaren hainbanaketa

aurreikusteagatik eta dirulaguntzen bidez finantzatutako zerbitzuei edo ondasunen erosketari dagokien BEZaren kenketa egiteko eskubidea mugatzen duen arau berezi bat ezartzeagatik”. Foru Ogasuneko zerbitzuak kalkulu bat egiten ari dira, jakiteko zenbat diru itzuli beharko den epai hori aplikatzearen ondorioz; lehen kalkulu baten arabera, 60 milioi euro inguru itzuli beharko dira.

VII.2.8. Etorkizuneko ekitaldietarako hitzarturiko gastuak

2004ko abenduaren 31n, Nafarroako Gobernuak hurrengo lau urteetarako hitzarturiko gastuak hauexek dira, oroitidazkiaren arabera:

Ekitaldia	(euroak, milakotan)	
	Geroko konpromisoak	
2005	261.936	
2006	128.840	
2007	56.021	
Gainerakoak	70.948	

Gastu horien aurrekontu- eta ekonomia-izaera, batik bat, transferentzia arrunt nahiz kapital-transferentziana —ehuneko 67— eta inbertsio errealena —ehuneko 27— da. Departamentuka, Herri lan, Industria eta Gizarte Ongizate departamentuetan metatzen dira batik bat.

2005eko ekitaldirako hitzartu diren gastuek ekitaldi horretako gastuen hasierako aurrekontuaren ehuneko zortzi egiten dute.

Hitzartutiko gastu horietan ez dira sartzen Canal de Navarra sozietateari etorkizunean egiten zaizkion kapital-ekarpenak, aurreikuspenen arabera 85,8 milioi euro egiten dutenak 2009ko ekitaldira bitarte.

Aurreko txostenetan adierazten zen legez, zor publikoaren interesetatik eta amortizaziotik heldu

direnak ere ez dira sartzen. 2015era arte, finantza-zamak, guztira, 576,4 milioi euro egiten du amortizazioan, eta 193 milioi euro interesetan.

Gastu horiek gorabehera, komeni da aipatzea badaudela etorkizunean zenbait gastu egiteko konpromisoak, hain zuzen ere Bideko autobia (Iruña-Logroño) dela-eta. Dena den, konpromiso horiek sortuko dira azpiegitura hori abian jartzen

den unean, eta une hori 2007ko ekitaldian izanen dela aurreikusten da.

VII.2.9. Erakunde autonomoak

Nafarroako Gobernuak administrazio-izaerako bederatzi erakunde autonomo dauzka, eta haien aurrekontu-likidazioa Gobernuarenean sarturik dago. Erakunde bakoitzaren 2004ko gastuak eta dirusarrerak honako taula honetan ageri dira:

Erakunde autonomoak	(euroak, milakotan)	
	Gastuak	Dirusarrerak
Nafarroako Zerga Ogasuna	33.7666	2.552.768
Evena	1.220	39
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua	22.423	1.432
Nafarroako Administrazio Publikoen Institutua	4.371	526
Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua	130.554	5.708
Nafarroako Lan Osasunaren Institutua	3.922	71
Osasunbidea–Nafarroako Osasun Zerbitzua	640.043	9.571
Nafarroako Emakumearen Institutua	1.532	171
Nafarroako Enplegu Zerbitzua	50.773	20307
Guztira	888.674	2.590.593

Gastuei dagokienez, hona azpimarratu beharrekoa:

- Erakunde autonomoek Nafarroako Gobernuaren gastu osoaren ehuneko 32 inguru kudeatzen dute. Kapitulu ekonomikoen arabera, langileen gastu guztiaren ehuneko 47, ondasun arrunten eta zerbitzuen arlokoaren ehuneko 64 eta transferentzia arrunten ehuneko 25 hartzen dute.

- Gastuen % 95 izaera arruntekoak dira.

- Osasunbideak, ehuneko 72rekin, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak, ehuneko 15ekin eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, ehuneko 6rekin, erakunde autonomoen gastuen ia ehuneko 93 argitzen dute.

Diru-sarreraren atalean, Nafarroako Gobernuaren diru-sarrera guztien ehuneko 95 kudeatzen dute. Aipamen berezia egin behar da Nafarroako Tributu Ogasunaz, zuzeneko eta zeharkako zerga guztien kudeaketa bere gain harturik baitu.

VII.3. ENPRESEN FORU-SEKTORE PUBLIKOA

VII.3.1. Enpresa publikoen sektorearen osaketa.

Nafarroako Gobernuak gehieneko partaidetza –ehuneko 50 edo gehiagokoa– dauka 29 enpresaren kapitalean. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ez da aldaketarik izan partaidetzaren gehiengoa Nafarroako Gobernuarena den entitateetan; aldaketa formal bakarra Cetenasa sozietatearen izenari dagokio, orain Navarra de Verificaciones Legales, S.A. deitzen baita.

Aurrekontuan ondoriorik izan gabe, Audenasa sozietateak kapital-zabalkuntza egin du erreserben kontura. Nafarroako Gobernuari 318.382 akzio dagozkio, 6,01 euroko balio nominalekoak.

Aurreko ekitaldien egiturari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren oroitidazkian enpresa publikoak bi taldetan banatuak azaltzen dira, kontabilitate nazi-

onaleko eta Aurrekontu egonkortasunari buruzko Legeko irizpideei jarraikiz; hau da, lege honen ondorioetarako, administrazio publiko gisa hartzen direnak hauexek dira: merkataritza-arloko diru-sarreraren bitartez gehieneko finantzaketa lortzen ez dutenak. Gisa horretako enpresak administrazio publikoaren sektorean sartzen dira, besteak beste, zor publikoa eta defizita kalkulatzearen ondorioetarako.

Foru enpresa publikoen artetik, administrazio publikoaren sektorekotzat hartzen dira honako hauek: ITG Ganadero, S.A., ITG Agrícola, S.A., Planetario de Pamplona, S.A., Start Up Capital Navarra, S.A., Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A., eta Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra, S.A.

VII.3.2. Enpresen sektore publikoko 2004ko datu ekonomikoak

Ondoko informazioa nabarmentzen dugu:

- Langileak. 1.137 langile dituzte, aurreko ekitaldian baino ehuneko 3 gehiago, hau da, 17 langile gehiago. Aldaketarik adierazgarrienak Ceinsan gertatu dira, 25 langile gehiago baititu plantillan.

- Gastu eta dirusarrera ekonomikoak. Enpresa publiko horiek guztiek 226,6 milioi euroko gastua eta 247,2 milioi pezetako dirusarrerak eragin dituzte 2004an. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, gastuak ehuneko 10 igo dira, eta dirusarrerak ehuneko 2 jaitsi dira.

- Jasotako dirulaguntzak Sektoreak 18,2 milioi euroko dirulaguntzak jaso ditu, aurreko ekitaldian baino ehuneko bost gutxiago; 15,4 arruntak dira, eta 2,8 kapitalekoak. Nafarroako Gobernuak 17,4 milioi jarri ditu guztira; hona dirulaguntza horien hartzaile diren enpresa nagusiak: bi ITGak -4,8 milioi euro-, Ceinsa -4,3 milioi euro-, Nasersa -1,3 milioi euro- eta Vinsa -2,2 milioi euro-. Guztira hamairu enpresa publikok (Start Up Capital, Audenasa, Baluarte, Gedesa, Natural Climate Systems, Nafinco, NGA, Nilsa, Nasuinsa, Nasursa, Opnatel, Posusa, eta Saldosa) ez dute Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik jaso 2004an.

- Ekonomia-emaizta Enpresa publikoen multzoak 273,2 milioi euroko etekinak lortu ditu, aurreko urtean baino ehuneko 185 gehiago. Emaizten igotza nabarmen horren jatorrian daude, batik bat, Sodenan eman diren aparteko emaitza positiboak -250 milioi euro inguru-, EHN, S.A. korporazioaren akzioak saltzearen ondorioz. Audenasaren irabaziaz ere nabarmenak izan dira, 19,8 milioi euro.

Galerarik adierazgarrienak Baluarteak -5,1 milioi euro-, Gestión Ambiental Viverosek -0,95

milioi euro- eta Posusak -0,88 milioi euro- izan dituzte.

- Epe luzeko zorpetzea. Epe luzerako zorrek 192 milioi euro egiten dute, aurreko ekitaldian baino ehuneko 8. Enpresei erreparatuta, honakoen zorpetzea azpimarratu behar dugu: Audenasa -80 milioi euro-, Nasuinsa -32,2 milioi euro-, Nilsa -18,3 milioi euro- eta Vinsa -17,2 milioi euro-.

- Laneko kapitala. 308 milioi eurokoa da, aurreko ekitaldian baino ehuneko 400 gehiago. Igoera hori Sodenan enpresatik heldu da batik bat, aipatu akzioen salmentatik alegia; orobat nabarmentzekoa da Audenasaren laneko kapital negatiboa, 48,3 milioi eurokoa.

- Aldi baterako finantza-inbertsioetan, enpresa publikoek 322,6 milioi euro zituzten inbertituta guztira. Aipatzekoak dira Sodenaren 245,1 milioiak, Nafincoren 32,2 milioiak eta Nasuinsaren 29,1 milioiak.

- Abalak. Enpresa publikoek 57,2 milioi euroko abalen saldo bizia dute, aurreko ekitaldian baino ehuneko 32 gehiago. Enpresei erreparatua, abal horiek ondokoetan metatzen dira batik bat: Sodenan -25,6 milioi-, Vinsa -16,4 milioi- eta Nafinco -12,9 milioi-.

- Nafarroako Gobernuak jasotako dibidenduak. Nafarroako Gobernuak 7,5 milioi euroko dibidenduak jaso ditu 2004an Audenasa sozietatearengandik, 2003ko dibidenduak direla eta.

- Finantza-inbertsioen balio-galeragatik hornitzea 2004ko ekitaldia ixtean, partaidetzaren gehiengoa Nafarroako Gobernuarena den enpresa publikoetan aipatu inbertsioak hornitu dira -5,8 milioi euro-; ia-ia dena Baluarte sozietatearenak dira.

VII.3. Auditoriako txostenak

Enpresen foru sektore publikoa osatzen duten enpresa guztien 2004ko urteko kontuak aditu independente batek ikuskatu ditu, Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartze orokorraren begiraltzapean. Auditoriako txosten horiek irakurrita, hauxe aipatu behar dugu:

- Hemeretizitan iritzia aldekoa da.

- Bederatzi kasutan, iritzia aldekoa da baina salbuespenekin; zehazki, salbuespen horiek honakoaren ingurukoak dira:

a) Tracasa. Bi salbuespen ditu; batetik, parte hartzen duen bi aldi baterako enpresa-elkarte integraztearen eragina egiaztatu ahal izan balitz egin beharko bide ziren doikuntzei buruzkoa eta, bestetik, haren akziodun nagusi NGAREN kreditu-kon-

pentsazio bidezko kapital-gehikuntza bat -1,16 milioi eurokoa- oker kontabilizatu izanari buruzkoa, eragiketa hori ez baitzen Merkataritza Erregistroan aldez aurretik inskribatu.

b) Riegos de Navarra: emandako mailegu batzuk kobratu ahal izateari buruzko zalantzak.

c) Nasuinsa, arrisku eta gastuetarako hornikuntza baten balizko kalkulu baten ondoriozko doikuntzak.

e) Nafinco. Alde batetik, kobratzeko dauden saldoak dituen sozietate bati buruzko informazio finantzariorik ezak eragindako muga du, eta, bestetik, ziurgabetasuna, desegite-prozesuan dagoen eta Gobernuaren partaidetza duen sozietate bati buruzkoa.

f) Nasersa: egindako obra bati eta haren finantza-kontrakontuari buruzko informazio faltak eragindako salbuespena.

f) ITG Ganadero Sozietatea erantzule zibil subsidiario gisa ageri da demandatua, nabe batean gertatutako istripu bat dela-eta, eta hortik heldu da ziurgabetasuna.

g) Agencia Navarra de Innovación y Tecnología, dirulaguntzak kontabilizatzeko irizpidea aldatu baita, nahiz eta auditoreak aldaketa onartu.

h) Saldosa, aplikatzeke dauden kreditu fiskalak eta zerga aurreratuak.

i) NGAre kontu bateratuak, haren menpeko sozietate Tracasak parte hartzen duen aldi baterako enpresa-elkarteen integrazioa posible izan balitz aintzat har zitezkeen doikuntzak direla eta.

• Ez da iritzirik ematen Posusa enpresaren urteko kontuei buruz, norainokoaren muga baten garrantzia dela eta; izan ere, ezin da zehaztu zer

eragin duten sozietatea likidatzeko erabakiek haren ondare- eta finantza-egoeran.

Azkenik, esan behar da bi txostenek nabarmentze-lerrokada batzuk dauzkatela, hain zuzen ere ondokoei buruzkoak:

a) Dirusarreretan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren menpekoa da erabat (Viveros y Riegos de Navarra).

b) Nafarroako Gobernuaren jabetzapeko instalazioak erabiltzen ditu, inongo kosturik ordaindu gabe (CEINSA).

Gutxi barru, Comptos Ganberak fiskalizazio txosten bat eginen du Foru Komunitateko administrazioaren enpresa publikoen transferentziengatik dirusarrerak, erosketak eta langileen kontratazioari buruz.

VII.3.4. Ondoren gertatutakoak

Ondoren gertatutakoen artean muntakoa izan da Sodena enpresak Iberdrola, S.A. sozietatearen 9 milioi akzio erosi zituela 2005eko otsailean, 173,5 milioi euroko kostuarekin. Erosketa hori dela medio, Sodenak aipatu sozietatearen ehuneko bat kontrolatzen du.

Orobat adierazi behar dugu ezen 2005eko dirusarreraren aurrekontuan erregistratu zela Sodena enpresa publikoak emandako 2004ko dibidendua -52,3 milioi euro-, EHN, S.A. korporazioaren akzioen salmentatik ateratako plusbalioetik heldu dena.

VII.3.5. Gobernuak kapitalaren partaidetzan gutxiengoa dueneko enpresak

Nafarroako Gobernuak kapitalaren partaidetzaren gutxiengoa dauka ondoko enpresetan:

Enpresa	Partaidetzaren ehunekoak	euroak, milakotan
		Zenbatekoa
Canal de Navarra	10,55	22.835
OPPOSA	33,33	246
Mercairuña	9	189
Convention Bureau, SA	30	18
Sonagar	23,04	962
Guztira		24.250

Kontabilitatearen ikuspegitik, partaidetza horien saldoa ez da 2003arekin alderatuta ezer aldatu.

2003ko txostenean adierazi genuen legez, Convention Bureau, S.A. enpresan gehiengoa duten bazkideak Nafarroako Gobernu eta Iruñeko Udala dira; horietako bakoitzak kapitalaren ehuneko 30eko partaidetza dauka. Horrenbestez, enpresa hori publikotzat jotzen da, baina ez dago araturik zein administrazio publikok –indibidualki nahiz bestearekin batera– izan behar duen haren kudeaketaren gaineko kontrol efektiboa.

VIII. GOMENDIO OROKORRAK

Jarraian, hainbat gomendio agertzen dira, egitza lanaren ondoriozkoak, eta horien artean sarturik daude beste ekitaldi batzuetan eginak izanik oraindik bete gabe daudenak:

Gomendio horiek berez dakarte kudeaketa hobetzeko neurriak aplikatzea eta arlo horri buruzko araudia betetzea.

VIII.1. URTEKO AURREKONTUAK ETA KONTUAK

Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak:

- *Ogasun publikoari buruzko Foru Legearen edukia egokitzea, batez ere ondoko arloetan:*

a) *Aurrekontu orokorretan eta kontu orokorrean sartu beharreko ente eta erakundeak, Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean Foru Komunitateko sektore publikoari buruz ematen den definizioaren arabera.*

b) *Foru Komunitateko sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jarduera guztiaren eta ondare-egoeraren kontabilitate-informazio bateratua.*

c) *Aurrekontuaren luzapena arautzea.*

d) *Programakako egungo aurrekontuen erabilgarritasuna.*

- *Ekitaldiko oroitidazkiari eranstea ekitaldi bakoitzean betetako jarduera hobeki ulertzeko eta hura gardenago egiteko lagungarri diren datu eta informazio guztiak. Hartara, beharrezkoa da honakoak eranstea:*

a) *Aurrekontuko emaitza, kontabilitate publikoaren plan indardunak adierazten dituen egiturekin eta doikuntzekin bat*

b) *Emaitza kontabilitate nazionalako terminoetan.*

c) *Diruzaintzako gerakinari buruzko egoerak, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31ko finan-*

*tza egoeraren adierazgarria eta hurrengo ekitaldi-
etako balizko aurrekontu-aldaketak finantzatzeko
iturria.*

d) *Aurrekontuen likidazioari buruzko egoera-
orrietan, kobrantza eta ordainketei buruzko infor-
mazioa, bai eta baliogabeturiko edo gehitutako
kredituen gerakinei buruzkoa ere.*

e) *Foru sektore publikoaren finantza-egoera
orokorra.*

f) *Zordunen eta hartzekodunen saldoen eta
bilakaeraren azterketa zehatza –ekitaldi indardu-
nekoak nahiz itxiako ekitaldietakoak–, egindako
kudeaketaren kalitatea ebaluatu ahal izateko.*

g) *Urte anitzeko herrilan handien egoera.*

h) *Zergen kudeaketa, ikuskaritza jarduketak eta
zergen aitopen gaineratuak.*

i) *Zerga gastuen aurreikuspenen jarraipena.*

VIII.2. KONTABILITATEAREN KUDEAKETA.

Kudeaketari begira, hona gure gomendioak:

- *Kontabilitate Atalak egun dituen giza baliabi-
deak nahiko ote diren aztertzea.*

- *Kontabilitate-arloko jarraibide batzuk presta-
tzea, honakoak barnean hartuko dituztenak, beste-
ak beste:*

a) *Nafarroako Foru Komunitateko administra-
zioan aplikatzekoa den kontabilitate plan orokorra.*

b) *Oinarrizko eragiketen kontabilitatea nola egi-
toko modua eta irizpideak.*

c) *Ekitaldia ixteko eragiketen normalizazioa.*

d) *Bateratzeko arauak, behin foru sektore
publikoa zer den definitu eta gero.*

e) *Kontabilitate-zerbitzu zentralek bete beha-
rreko kontrol eta koordinazio zeregina.*

- *Hirugarrenen kontabilitate laguntzaileko sis-
tema berrikusi eta gaurkotzea.*

- *“Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketen
zordunak” izeneko balantze-kontu erabiltzea aurre-
kontu-kredito nahiko ez zegoelako aurrekontuari
egotzi ezin izan zaizkion gastuak erregistratzeko.*

- *Foru funtzionarioen eskubide pasiboaren siste-
mak dakartzan obligazio aktuarialak neurtu eta
finantzen egoera-orrietan erregistratzea.*

VIII.3. KONTU-HARTZAILTZA ETA BARNE KONTROLA

- *Kontu-hartzaitzako langileen plantillan jaso-
tako lanpostu guztiak behin betiko betetzea.*

VIII.4. LANGILEAK

Kudeaketari begira, hona gure gomendioak:

- *Pasiboen nominak egiteko eta haien jarraipenerako idatzizko prozedura bat taxutzea, faseak hartuko dituen: ematea, kalkuluak, hileko kontrol edo koadratzeak, erregistroak, kontabilizazioa eta ordainketa. Prozedura horretan aurrez ikusi behar-ko lirateke, halaber, Nafarroako Gobernu Kontuhartzaitzak jarduteko moduak.*

- *Jarduketa-helburuak betetzeari loturiko ordainsarien osagarriak modu indibidualean sortuko dira erabakiak ukituriko langile guztientzat, betiere helburu horiek betetzeko mailaren arabera; ez da haien artean banaketa linealik egingen.*

- *Aldi baterako lan kontratudunen langileen gastuan izaniko igoeraren aurrean, gastu hori haztearen jatorria eta arrazoiak aztertzea, bai eta, kasua bada, plantilla organikoaren arrazoizkotasuna ere.*

VIII.5. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOARI BURUZKOAN.

- *Administrazio kontratuen arloko foru arauak osatzea, Nafarroako administrazio publikoei esparru egokia emateko gai honetan. Hori dela-eta gogorarazi beharra dago ezen kontratazioari buruzko Europako araudiaren transposizioa, 2004/18/CE zuzentarauarena alegia, 2006ko urtarrilaren 31 baino lehen egin behar dela; hortaz, botere publikoei gomendatzen zaie hainbat arinen onets dezaten kontratu publikoei buruzko foru lege proiektu berria, kudeaketa publikoaren oinarritzko arlo horretan ziurgabetasun juridikoko egoerak ekiditeko.*

- *Foru Komunitateko administrazioaren eta bere sozietateen arteko merkataritza-harremanen oinarritzko alderdi guztien erregelamendu bidezko garapena burutzea.*

Azterturiko kontratu-lagina ikusirik, araudi indarduna betetzeari buruzko honako gomendio hauek egin behar dira:

- *Espedienteetan, behar adina arrazoitu behar-ko da hautaketarako erabilitako prozedura eta aplikaturiko esleitze-modua.*

- *Hautaketa-prozesuetan komenigarria da jasotako ekaintzen eta eskaintzaile bakoitzak ekarritako dokumentuen ziurtagiriak egitea.*

- *Oro har, formalizatu diren kontratuak ez zaizkio beti jakinarazten erregistroari.*

- *Kontratuak betetzean hautemandako atzerapenak behar bezala justifikatzea eta, kasua bada, pleguetan aurreikusitako penalizazioak aplikatzea.*

- *Zerbitzuen prestazioa kontratatzeko prozesuak planifikatzea, aurreikusi gabeko kontratu-luzapenak edo lege-estaldurarik gabeko prestazioak ekiditeko.*

VIII.6. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Azterturiko kontratu-lagina ikusirik, araudi indarduna betetzeari buruzko honako gomendio hauek egin behar dira:

- *Dirulaguntzen urteko deialdietan, aplikatzekoak diren hautapen-irizpideak argiro zehaztea. Txosten teknikoek eskatzaile bakoitzari emandako baliospena ere justifikatu behar dute, bai eta diruz laguntzekoa den jardueraren ehunekoa ere.*

- *Aurrekontu-kredituko haborokirik baldin badago, urteko deialdia formalki zabaltzea, dirulaguntza publikoak emateari buruzko oinarritzko printzipioekin bat.*

- *Izendunak. Onuradunak hitzartu diren betebeharrak zenbateraino bete dituen jakiteko txosten idatziak egitea.*

- *Administrazio publikoetako ente eta erakundeen arteko harremanetan –haien artekoetan ez ezik sektore pribatuarekin dauzkaten harremanetan ere–, negozio juridikoaren izaerak berak giltzari izan behar du ondorioztatzeko harreman hori diru-laguntzaren, kontratuaren edo hitzarmenaren figurari jarraikiz arautzen ote den.*

Txosten hau egiten ari ginela, Nafarroako aurrekontu orokorren kargura emandako dirulaguntzei buruzko Foru Legea onetsi du Nafarroako Parlamentuak.

VIII.7. IBILGETUA

Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak:

- *Kontabilitate publikoko printzipioak aplikatzea ibilgetu materialeko elementuak erregistratzeko, ondoko alderdiak kontuan hartuz:*

- Haiek aitortzeko eta baloratzeko irizpide orokorrak, altetarako, bajetarako, gehikuntzetarako eta hobekuntzetarako ere.*

- Balorazioaren zuzentasunerako arauak eta prozedurak, ondasun horien amortizazioak eta gainerako balio-galerak islatzeko.*

- Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako kontu berariazkoak erabiltzea batetik*

erabilera orokorrari emandako ondasunak eta bestetik ibilgetu ez-materiala nahzi atxikitako eta lagatako ondasunak islatzeko.

- *Ibilgetu materialeko kontabilitate-saldoak berrius eta bahetu bitez, eta behar diren prozedura administratibo eta kontabilitatekoak ezar bitez bermatzeko saldo horiek izaera horretako ondasun-multzoa uneoro behar bezala islatzen dutela.*

- *Gobernuaren Ondareko ondasunen Inbentario Orokorra oinarri harturik, hura osatzea gaur egun jasota ez dauden ondasunekin (esate baterako, erabilera orokorrerako inbertsioak, ibilgetuak, higigarriak eta inbertsio finantzarioak), eta osagarri gisa aplikatzea kontabilitate publikoko irizpideak, inbentario horrek kontabilitate-saldoak behar bezala berma ditzan.*

- *Ganbera hau behin eta berriro azpimarratzen ari den legez, kontabilitateko datuak eta inbentariokoak aldian-aldian bateratzeko aukera emanen duten prozedurak taxutzea. Horretarako, ukituriko zerbitzuen arteko koordinazio egokia eman behar da.*

VIII.8. LURZORU PUBLIKOAREN FORU BANKUA

- *Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ondokoei buruz ezarritako baldintzak betetzea:*

a) *Foru Bankuari atxikitako ondasunen eta horien ezaugarrien zerrenda zehatza.*

b) *Inbentarioaren barreneko erregistro endependiente osoa.*

c) *Aipatu ondasunak besterentzetik lortutako baliabideen atxikipena.*

VIII.9. TRIBUTUEN ARLOKO DIRUSARRE-RAK ETA ZORDUNAK

Hona gure gomendioak arlo hori egoki kudeatze aldera:

- *Tributu-zerbitzuek erregistraturiko eskubideen eta kontabilitate laguntzailean sortutakoen alderaketa edo berdinkatzea bermatuko duten prozeduren aplikazioa osatzea.*

- *Aztertzea zordunen kontuek zer saldo duten abenduaren 31n; batez ere, aspaldikoak direnek edo saldo hartzekoduna dutenek.*

- *Triburu-zorraren jarraipen eta kontrol egokia egitea, preskripzioak saihesteko.*

VIII.10. DIRUZAINNTZA

Hona gure gomendioak diruzaintza kudeatzeko

- *Diruzaintza Atalaren eragikera biltzen duten oinarritzko prozedurei buruzko eskuliburua taxutzea.*

- *Diruzaintzako Erregistroan jasotako kontu korronteetako datuak berrikustea eta, kasua bada, erregularizatzea, haien izaera nahiz kontuak bateratu, likidatu eta kontrolatzeko arduradunak identifikatzea.*

- *Diruzaintzako Erregistroan jasotako kontuen funtzionamendua egoki arautzea, Diruzaintza Atalera nahitaez igorri beharreko informazio-betebeharrak ezartzea eta, izaeraren arabera, diruzaintzako sistema orokorrean haien saldoak sartzeko baldintzak ezartzea.*

B) FORU SEKTORE PUBLIKOAREN GAINERAKO KONTUAK

IX. FORU SEKTORE PUBLIKOKO BESTE ENTITATE BATZUK

IX.1. FUNDAZIOEN FORU SEKTORE PUBLIKOA

Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak –2005eko martxoaren 1etik aitzina indarrean denak– honela definitzen ditu fundazio publikoak:

1. “Fundazio publikoak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta haren erakunde autonomoak beren esku dituzten helburuak egiteko sortzen dituztenak dira, Foru Zuzenbide Zibilarren Bildumarekin bat. Entitate sortzailearen eskumen esparruari loturiko jarduerak egin ahalko dituzte bakarrik.

2. Sortzen direnean, fundazioaren ondarea gehienbat sortzailearen zuzeneko edo zeharkako diru-ekarpenek osatuko dute.”

Definizio hori aintzat hartuta, 2004ko oroitidazkian, publikotzat jotzen edo sailkatzen dituen zortzi fundazioen urteko kontuen laburpen bat erantsi du Nafarroako Gobernuak. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, Oteiza Fundazioa –partikular baten ekimenez sortua– kanpoan utzi da eta Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa sartu da.

Oroitidazkiari erantsitako informazioa aztertuta, honakoa da azpimarragarriena:

- Hona aurreko fundazioetako bakoitzaren xedeak:

«MIGUEL SERVET» FUNDAZIOA

Xedea: osasunaren zientzien eta osasun arloko administrazioaren eta kudeaketaren teknikari eta profesionalentzako espezializazio jarduketak sustatu eta antolatzea; laguntza administratiboa; lankidetzatza; osasun administrazioarentzako irakaskuntza jarduerak eta osasunaren arloko ikerketak egiteko laguntza tekniko eta zerbitzuetakoa, eta osasun departamentuari aholkua ematea ikerketa zientifikoan, garapen teknologikoan eta irakaskuntzan.

“PABLO SARASATE” FUNDAZIOA

Xedea: musikagile eta interprete nafarren obrak sustatzea; Nafarroako musika ondarean ikerketa egitea eta hura zaindu eta zabaltzea; irakaskuntza zentroekin lankidetzan aritzea, eta kontzertuak, musika-emanaldiak, hitzaldiak eta musikaren arloko bestelako jarduerak sustatzea.

FUNDACIÓN PARA LA CONSERVACIÓN DEL PATRIMONIO HISTÓRICO DE NAVARRA

Xedea: Nafarroan interes kulturalakotzat jotako monumentuak zaindu eta zaharberritzea, eta haien inguruak hobetu eta egokitzea; dirulaguntzak eta laguntzak eman ahal izateko baliabide ekonomikoak lortzea, eta fundazioaren xedeetan lagunduko duten ikerketa eta prestakuntza programak sustatu eta prestatzea.

CETENASA FUNDAZIOA

Xedea: Nafarroako enpresentzat ikerketa zientifikoko, garapen teknologikoko eta berrikuntzaren sustapeneko jarduerak bultzatu eta betetzea.

CENER-CIEMAT FUNDAZIOA

Xedea: energia berriztagarriak aprobetxatzeko teknologiak garatzea; energia berriztagarrietarako

CENER-CIEMAT zentro teknologikoa eraikitzea, eta enpresei energia berriztagarriak ustiatzeko ezagupen berritzaileak jakitera ematea.

FUNDACIÓN PARA LA TUTELA DE PERSONAS ADULTAS

Xedea: Nafarroan egoitza duten pertsona heldu legez ezgaituak tutelatzea, haien tutoretza Nafarroako Gobernuari egozten zaionean; ezgaitzeko prozesu bat hasi zaien pertsonak auzitegian defendatzea; tutoretzapeko pertsonaren ondasunak administrazioa; laguntza, prebentzio, errehabilitazio, lan munduratzeko eta prestakuntza jardueretan parte hartzeko bidea ematea; tutoretzapeko pertsonen garapen soziala errazteko programak egin daitezkeen sustatzea.

BALUARTE FUNDAZIOA

Xedea: Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea.

NAFARROAKO INGURUMEN ARLOKO BALIABIDEEN ZENTROA FUNDAZIOA

Xedea: Foru Komunitatearen ingurumen- eta gizarte-egoera ikertzea eta gizarteak ingurumenaren kudeaketan parte har dezan sustatzea, teknologia garbiak, ingurumenari buruzko dokumentazioa eta iraunkortasunerako beste ekintza batzuk ezagutarazi, hedatu eta bilduta. Ingurumen Hezkuntzarako Nafarroako Estrategiaren garapen eta jarraipena ere, estrategian sartuta dauden gizarte-sektore guztiekin lankidetzatza estu eta zabalean.»

• Ekitaldiko gastuak eta dirusarrerak 21,53 eta 21,67 milioi eurokoak izan dira, hurrenez hurren; ondoko taulan eman dugu haien xehekapena:

Fundazioa	(euroak, milakotan)	
	Gastuak	Dirusarrerak
Miguel Servet	67	67
Pablo Sarasate	5.138	5.138
Conservación del Patrimonio Histórico	1.318	1.318
Cetenasa	5.020	5.020
Cener-Ciemat	6.175	6.321
Tutela de Personas Adultas	161	161
C. Ingurumen Baliabideak	615	615
Baluarte	3.031	3.031
Guztira	21.525	21.671

- Oro har, fundazio publikoek ondare-egoera egokia daukate, epe luzeko zorpetze txikiarekin –1,42 milioi euro Cener-Ciemat Fundazioan– eta maniobra funts orokor positiboarekin –5,35 milioi euro–. Diruzaintzako saldoek 0,60 milioi euro egiten dute; aldi baterako inbertsio finantzarioek, berriz, 3,17 milioi euro.

- Ekitaldiko emaitza ekonomikoen zenbatekoari dagokionez, denek dute zero saldoa, salbu eta Cener-Ciemat Fundazioak, 0,15 milioi euroko irabaziak baititu.

IX.2. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Atal honetan ondoko entitateak aztertu ditugu, 15/2004 Foru Legearen arabera sailkatuta:

a) Foru Komunitateko administrazioaren menpekoak diren beste erakunde publiko batzuk: Nafarroako Su-Itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa

b) Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioari loturiko erakunde publikoak: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

b) Administrazio korporatiboa: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala.

c) Kontsulta administrazioa: Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua eta Nafarroako Kontseilua. Entitate horien aurrekontua Nafarroako kontu orokorretan sartzen da.

Comptos Ganberak, gainera, Ikus-entzunezkoen Kontseilua eta Nafarroako Kontseilua fiskalizatu ditu; Merkataritza Ganberaren auditoria, berriz, profesional independenteek egin dute. Txosten horietatik finantza egoera-orrien islagarritasunaren aldeko iritzia ondorioztatzen da; halere, badira bi salbuespen, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluari eta Nafarroako Kontseiluari dagozkienak, lehenengoaren kasuan langileen gastuak oker egotzi izanari buruzkoa eta bigarrenarenean ganberaren baliabideetatik heldu diren dirusarreraren kuantifikazioak eragindako ziurgabetasunari buruzkoa.

Arestian aipatutako gainerako entitateen 2004ko urteko kontuen laburpena Gobernuaren oroitidazkian jasorik dago.

Informazio finantzarioa aztertuta, ondoko azpimarratu nahi dugu:

- Ondoko taulan eman ditugu enteen gastu eta dirusarrerak –ekonomikoak nahiz aurrekontukoak–:

Entea/entitatea	(euroak, milakotan)	
	Gastuak	Dirusarrerak
Su-Itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa	19.146	19.146
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	72.146	65.619
Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera	6.294	6.621
Nafarroako Kontseilua	263	-
Ikus-entzunezkoen Kontseilua	308	-

• Ondoko taulan azaltzen da zenbat enplegatu zituzten erakunde horiek 2004an:

Entea/entitatea	langileak
Su-Itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa	406
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	1.184
Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera	56
Nafarroako Kontseilua	2
Ikus-entzunezkoen Kontseilua	4
Guztira	1.652

• Ente hauek finantza-egoera egokia daukate; maniobra funts positiboa daukate, 14,08 milioi eurokoa –batez ere Unibertsitate Publikoarena– eta 1,24 milioiko epe luzeko zorpetzea, Merkataritza Ganberarena. Zorpetzearen zenbatekoa 2003ko ia-ia berbera da, eta laneko kapitala, berriz, 6 milioi euro jaitxi da.

IX.3. FORU SEKTORE PUBLIKOAREN GAI- NERAKORAKO GOMENDIOAK

15/2004 Foru Legea indarrean sartzearekin bete egin da Comptos Ganberak kontu orokorrei buruz egindako azken txostenetan jasotako gomendioetako bat; izan ere, foru lege horrek foru sektore publikoa osatzen duten erakunde publikoak eta bestelako enteak sortzeko modua, antolamendua eta araubide juridikoa ezartzen ditu.

Hona gure gomendioa foru sektore publikoa arautzen duen lege-esparru hori osatzeko:

• *Ogasun publikoari buruzko Foru Legea egokitzea; hartara, bai Nafarroako aurrekontu orokorrek prestatzean bai Nafarroako kontu orokorrek taxutzean foru sektore publikoa osatzen duten ente nahiz entitate guztiak bilduko dira, zein bere berezitasunekin, aipatu 15/2004 Foru Legean emandako definizioarekin bat.*

• *Fundazioen sektorerako ezartzea, enpresa publikoetan egiten den bezala, nahitaezkoa dela horien urteko kontuei urtero auditoria egitea, eta emaitzen txostenean auditoria horiek jasotzea.*

• *Foru sektore publikoa osatzen duten entitate, ente eta enpresa publikoen erregistro bat sortzea, zeinak, haiei buruz behar den administrazio eta merkataritza arloetako informazioa edukitzeaz gain, haien urteko kontuen nahitaezko gordailu publikoa izan beharko baitu.*

C) FORU SEKTORE PUBLIKOAREN FINAN- TZA-EGOERA

X. FORU SEKTORE PUBLIKOAREN FINAN- TZA-EGOERARI BURUZKO ONDORIO NAGUSI- AK

Foru sektore publikoa osatzen duten erakunde eta ente horiek guztiak aintzat hartuz eta egoerorri bateraturik ez dagoela jakinik, honako puntu hauek azpimarratuko ditugu:

• Foru sektore publikoa osatzen duten entitateen 2004ko ekitaldiko datuak, eta 2003ko datuekiko alderaketa, gastu eta dirusarrerari dagokienez ⁽²⁾ (aurrekontuak edo ekonomikoak, entitatearen izaeraren arabera), ondoko hauek dira:

	Gastuak 2004	Gastuak 2003	% Aldak.	Dirusarrerak 2004	Dirusarrerak 2003	% Aldak.
Administrazio orokorra eta erakunde autonomoak	2.807,5	2.688,2	4	2.724	2.654,1	3
Parlamentu-erakundeak	10,6	10,3	3	12,7	12,7	-
Enpresen sektore publikoa	226,6	223,3	1	247,2	251,8	(2)
Menpeko nahi loturiko erak. publikoak	91,3	84,2	8	84,77	88,1	(4)
Fundazioen Sektore Publikoa	21,5	19	13	21,2	18,4	15
Administrazio korporatiboa	6,3	5,8	9	6,6	5,8	14
Kontsulta administrazioa	0,6	0,5	20	-	-	-

(2) Bateratu gabeko zenbatekoak

• langileak. Foru sektore publikoak ondoko langilek ditu 2004an:

	Zenbatekoa
Administrazio orokorra eta erakunde autonomoak	20.415
Parlamentu-erakundeak	118
Enpresen sektore publikoa	1.137
Menpeko nahi loturiko erak. publikoak	1.590
Fundazioen sektore publikoa	d.ez
Administrazio korporatiboa	56
Kontsulta administrazioa	6
Guztira	23.322

Foru sektore publikoak –fundazio publikoak alde batera utzita– 23.322 pertsonari eman die lana 2004an; alegia, Nafarroak 2004an duen biztanleria aktiboaren ehuneko bederatzia gutxi gorabehera.

• Epe luzerako zorra. Foru sektore publikoko epe luzerako zorra 723,50 milioi eurokoa da guztira. Azpisektoreen arabera honela xehekatzen da kopuru hori:

(euroak, milioitan)			
Foru sektore publikoa	Zor publikoa, epe luzekoa	Epe luzerako zorraren gainerakoa	Guztira
Administrazio orokorra	503,17	25,60	528,77
Enpresen sektore publikoa		192,07	192,07
Fundazioen sektore publikoa		1,42	1,42
Administrazio korporatiboa		1,24	1,24
Guztira			723,50

Ikus daitekeenez, zorraren ehuneko 73 Nafarroako Gobernuaren eskuetan biltzen da.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 60,6 milioi jaitsi da epe luzerako zorra, batez ere 76,3 milioi jaitsi delako Nafarroako Gobernuan –epe laburrerako zor bilakatzean– eta 14,9 milioi igo delako enpresa publikoen sektorean.

Nafarroako BPGari dagokionez, foru sektore publikoaren epe luzerako zorrak horren ehuneko bost egiten du gutxi gorabehera.

• Laneko kapitala. Foru sektore publikoa osatzen duten enteen laneko kapitala positiboa da (aktibo zirkulatuilea-pasibo zirkulatuilea), 145 milioi eurokoa, ondoko taulan adierazten den bezalaxe:

(euroak, milioitan)	
Foru sektore publikoa	Zenbatekoa
Administrazio orokorra	(183,26)
Parlamentu-erakundeak	0,86
Enpresen sektore publikoa	308,03
Menpeko nahi loturiko erak. publikoak	12,60
Fundazioen sektore publikoa	5,35
Administrazio korporatiboa	1,48
Guztira	145,06

Nabarmentzekoa da Nafarroako Gobernuan laneko kapital negatiboa dagoela, aurreko ekitaldiarekin alderatuta ia ehuneko 700 igo dena, eta enpresa sektorearen laneko kapital positiboa adierazgarria dela, batik bat Sodena enpresaren aparteko irabaziei esker.

• Abalak. Foru sektore publikoak emandako abalak ondoko taulan azaltzen dira:

(euroak, milioitan)	
Foru sektore publikoa	Zenbatekoa
Administrazio orokorra	57,56
Enpresen sektore publikoa	57,19
Guztira	114,75

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, emandako abal biziak 4,15 milioi igo dira.

Ekitaldiko eragiketa nabarmenen artean aipatu beharrekoak dira Nafarroako Gobernuak Audenazari 9 milioi euroko abala kitatu izana eta Sodena enpresak 11,62 milioi euroko abala eman izana.

Txosten honen arduradun den auditore Ignacio Cabeza del Salvador jaunak proposatuta egin da lan hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2005eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

ERANSKINA: KONTABILITATE EMAITZA PUBLIKOEN TIPOLOGIEN ANALISIA

Sektore publikoaren kontabilitate plan orokorren aplikazioak kontabilitate publikoaren eredu bat definitzea ekarri zuen, aurrekontu arloko informazioa eta ekonomia nahiz ondare arloetakoak biltzen dituena. Horretarako, definitu egiten dira kontabilitate-printzipio batzuk, entitatearen irudi fidela ematea bilatzen dutenak, eta bi kontabilitate-azpistema horiek lotzeko irizpideak eta kontuak ezartzen dira.

Hortik bi emaitza mota heldu dira:

Emaita
1. Aurrezpen gordina*
2. Superabita/Kapital defizita**
3. Aurrekontuko saldo ez finantzarioa (1 ± 2)
4. Finantza-aktiboen aldaketak
5. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (3 ± 4)
6. Finantza-pasiboen aldaketa garbia
7. Aurrekontuko saldo ez finantzarioa (5 ± 6)
8. Doikuntzak (finantzabide atxikia duten gastuetatik eta diruzaintzako gerakinetik heldu direnak)
Ekitaldiaren finantziarioko superabita/defizita (7 ± 8)

Aurrezki gordina gastu eta dirusarrera arruntan arteko aldea da, eta kapital-gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen du, aldegia, administrazioak egin beharreko inbertsioak.

Finantza-aktiboen aldaketak izaera horretako gastuen eta dirusarreraren arteko aldetik ateratzen dira; alegia, kapital-ekarpenei, aurrerakinei eta maileguei aplikatutako baliabideak ken kapital-desinbertsioetatik eta ordainketetatik lortutako dirusarrerak.

Finantza-pasiboen aldaketek zor berri hartu ken hura amortizatzeraz bideratutako zenbatekoen arteko aldea adierazten dute.

Azkenik, doikuntzak aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakinen bidez finantzatutako gastuei

Aurrekontu emaitza: horren oinarritzko helburua da gastu eta dirusarreraren aurrekontu-aurreikuspenen betetze maila aztertzea. Emaita hori positiboa edo superabita baldin bada, aurrekontu-dirusarrerak nahiko izan dira aurrekontu-gastuak finantzatzeko, eta aldiz, defizitduna izan baldin bada, dirusarrera horiek ez dira nahiko aurrekontu-gastu guztiak estaltzeko.

Emaita horren azterketa osatze aldera, emaitza ondoko kontzeptuen arabera sailkatu dugu, aurrekontu-magnitude hori hobeki interpretatzeko lagungarri direlako.

eta finantzabidea ezarria duten gastuei buruzkoak dira.

Ekonomia eta ondare emaitzako kontua. Ondare-kontabilitatearen ikuspuntutik entitate publikoaren ekonomia- nahiz finantza-kudeaketan gertatu den aurrezki edo desaurrezkia adierazten digu. Horretarako, aurrekontu nahiz aurrekontuz kanpoko informazioa egoera-balantzearen eta emaitza-kontuaren kasuan kasuko kontusailei egozten zaie, egiazko ekonomia-izaerari erreparatuta, alegia, ekonomia-gastua, ekonomia-dirusarrera, aktiboa edo pasiboa diren. Haren definizioa eta egitura sektore pribatuan baliatzen den galera eta irabazien kontuaren gisakoa da. Hona horren taxukera:

ZORRA	HARTZEKOA
1. Izakinak murriztea	1. Salmentak eta zerbitzuak ematea
2. Hornidurak	2. Izakinen gehikuntza
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	3. Kudeaketa arrunteko beste dirusarrera batzuk
4. Transferentziak eta dirulaguntzak	4. Transferentziak eta dirulaguntzak
5. Ez-ohiko galera eta gastuak	5. Ez-ohiko irabazi eta dirusarrerak
<i>Aurrezkoa</i>	<i>Desaurrezkia</i>

Aurrekontuko gainerako gastu eta dirusarrerak, arestiko kontuari egotzi ez zaizkionak, entitatearen balantzean islatzen dira.

Emaiza positiboa baldin bada –aurrezki–, entitateak behar adina baliabide sortu du zerbitzu publikoak ematek heldu diren gastuak finantzatzeko; bestela, saldo negatibo edo desurrezkiak sortu du. Aurrezkiak gertatzen baldin bada, entitateak finantza-ahalmena sortzen du; desurrezkiak, berriz, herritarrak, printzipioz, behartuta egonen dira alde aurretik eman diren zerbitzu batzuen gaineko zama gehigarriak jasatera.

Sektore pribatuan ez bezala, arestiko emaitza ez da zerbitzu publikoen kudeaketa egokiaren adierazle; izan ere, sektore pribatuan saldo horrek balio du enpresaren irabaziak maximizatzeko helburua egiazatzeko. Ekonomia-emaizaren helburua, sektore publikoan, belaunaldien arteko orekaren analisitik gertuago dago; alegia, ea egungo belaunaldiaren zerga karga hurrengoei uzten zaien ala ez.

Praktikan, aurrekontu-emaiza gailendu da kontabilitate-informazio publikoaren erabiltzaileen kontrol eta analisietan; izan ere, aurrekontua da jardun publikoaren eta haren kontrolaren tresna nagusia.

Europako ekonomia-elkarganatzeko konpromisoek, ordea, behartu egiten dute sektore publikoaren ekonomia- nahiz finantz-jarduera defizit publikoa kontrolatzeko parametroetan bideratzera, eta, horrenbestez, zor publikoa aurrekontu-baliabide gisa neurritz erabiltzera. Konpromiso horiek aurrekontu egonkortasunari buruzko legeetan jasotzen dira Espainian. Horra: Aurrekontu egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Lege Orokorra eta haren osagarri den abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoa. Halatan, aurrekontu arloko oreka, aurrekontu egonkortasuneko terminoetan, ondokoa dela ulertzen da: administrazio publikoaren mailetak bakoitzerako –estatukoa, autonomia erkidegokoa, tokikoa nahiz haien menpeko entee-na izan– botere publikoek ezarritako urte anitzeko –3 urteko– esparru baten oreka ekonomikoa.

Konpromiso horiek indarrean sartzearekin, administrazio publikoaren aurrekontu arloko jardueraren zero defizita lortzearen eta finantza-zorpetzearen eustearren menpe dago, bi horiek barne produktu gordinaren gaineko ehunekotan neurtuta. Oreka egoera hori aurrekontuan prestatzeko garaian nola betetzean eman behar da.

Horren ondorioz, kudeaketa publikoko emaitza berri bat azaltzen da: SEC´95aren arabeko emaitza edo finantzazeko behar eta ahalmenaren kalkulua. Emaiza hori ez da arestiko bi emaitzen

(aurrekontu-emaizaren eta ondare- nahiz ekonomia-emaizaren) baliokidea.

Hori ezartzeak berekin dakar bilatzen diren defizit nahiz zor helburuak neurtzeko tresna bat taxutzea. Europar Batasuneko herrien kontabilitate publikoak ez du behar besteko harmonizazio-mailarik –ez dago kontabilitate publikoari buruzko Europako araurik–, eta hortaz, aipatu helburuak SEC´95aren irizpideen arabera neurtzen dira; alegia, kontabilitate nazionalako terminoetan. Testuinguru horretan, kontabilitate nazionala da Batasuneko sektore publikoaren informazioa konparagarria izatea ahalbidetzen duen metodologia bakarra.

Kontabilitate nazionalako analisiak egiteko informazioa, ordea, kontabilitate publikoak eman behar du ezinbestean, beharrezkoak diren egokitzapen eta doikuntzak eginda eta bi kontabilitate sistema horiek lotzeko arazoekin.

Ondotik zehazten dira bi kontabilitate sistemen arteko desberdintasunak defizit publikoaren kalkulari begira.

- Aplikazio ingurune subjektiboa: sektore publikoaren definizioa kontabilitate nazionalan, unitateak merkatuko edo ez-merkatuko unitatetzat hartzen diren. Alegia, honako hau da bi kontabilitate sistemen arteko ezberdintasun nagusia: ea administrazio publikoaren menpeko gainontzeko ente horiek –enpresa publikoak, fundazio publikoak, enpresa-entitate publikoak...– administrazio publikotzat hartzen diren ala ez; izan ere, merkataritza- arloko diru-sarreraren bitartez lortzen baldin badute gehieneko finantzaketa, kontabilitate nazionalaren arabera ez dira sartzen administrazio publikoaren sektorearen barruan. Kontabilitate publikoan, berriz, sektore publikoaren osaketa aurrekontu arloko araudiak definitzen du, eta aipatu ente horien finantza- eta/edo erabaki-kontrolarekin lotzen da batik bat.

- Eragiketarako erregistratzeko uneari lotutako arauak eta horien eragina defizita zehazterakoan. Eragiketa multzo bati bi sistemetan ematen zaion kontabilitate tratamendua. Horien artean, ondokoa nabarmentzen ditugu:

a) Administrazio publikoaren zergen tratamendua, aurrekontu- naiz kontabilitate-irizpideei buruz aldaketa nabarmena dakarrena. Printzipio gisa ezartzen da ez direla dirusarrera gisa erregistratu behar kobratzen ez diren zergak. Ondorioz, kutxako irizpidea aplikatzen da, edo, kasua bada, ordainarazpen zuzenduarena.

b) Enpresa publikoak ekarpenak, zorrak bereganatzea eta abalak exekutatzeko. Oro har, transferentziatzat hartuko dira kontabilitate nazionalan,

salbu eta ekarpenen kasuan administrazioak trukean jasotzen badu ordainketaren balio bereko finantza-aktibo bat, ustez dibidenduak ekarriko dituen.

c) Enpresa publikoak pribatizatzetik heldu diren dirusarrerak: kontabilitate nazionalan, defizitean eraginik izan gabe, kontabilitate publikoan, gora beheratsua da, aurrekontuari eta, ondorioz, defizitaren kalkuluari egozten zaizkiolako.

d) Itzaleko bidesaria. Kontabilitate publikoan, eta azpiegitura behin abian jartzen denean defizitari eragiten dioten ordainketak sortzen ditu, kontabilitate nazionalan aztertu beharra dago ea errentamendu finantzarioa den –defizitean eraginik izan gabe– ala operatiboa den –defizitean eragina duena–.

Emaizta berri hori kontabilitate nazionalako terminoetan zehazteko, ondoko eskemari jarraitzen zaio batik bat:

SEC'95eko terminoen arabeko emaitza

1. Administrazio publikoaren aurrekontuko saldo ez finantzarioa (kontabilitate publikotik aterea)

2. Aurreko saldoaren aurreko doiketak, SEC'95etik heldu direnak

3. Kontabilitate nazionalaren ondorioetarako administrazio publikotzat har daitezkeen beste unitate batzuen (enteak, enpresak eta fundazio publikoak) finantzatzeko gaitasuna edo beharra

Finantzatzeko ahalmena edo beharra

Finantzatzeko ahalmen horrek adieraziko digu administrazio publikoak finantzaketa-superabita lortu duela eta, horrenbestez, aurrekontu-egonkortasunaren betebeharra bete duela.

Finantzatzeko beharraren kasuan, administrazio jakin horrek ezinbestean ezarri beharko du ekonomia- eta finantza-saneamenduko plan bat desoreka-egoera zuzentzeko.

Laburbilduz, aldi berean kontabilitate-informazio publikoko hainbat esparru egoteak arautzen du administrazio publikoen kontabilitate arloko kudeaketa: kontabilitate publikokoa –aurrekontukoaren eta ekonomia nahiz ondarezkoaren arteko ohiko dikotomiarekin eta kontabilitate nazionalakoa. Kontabilitate arloko printzipio eta irizpide berariazkoek arautzen dituzte esparru horiek.

Aurrekontu-emaizak eta ekonomia- nahiz ondare-emaizak kontabilitate publikoaren sistematik ateratzen dira zuzenean.

Emaizta SEC'95aren terminoen arabera zehaztean, kontabilitate nazionalari eman beharreko informazio iturri bilakatzen da kontabilitate publikoa, eta bi sistema horien artean ingurune subjektiboan aldea dagoenez eragiketan erregistratzeko unean eta defizita zehaztean, beharrezkoa da kontabilitate-informazio publikoari egokitze-, eraldatze- nahiz doitze-prozesu konplexu bat aplikatzea.

Ondorioz, kontabilitate-informazio publikoaren erabiltzaile guztiak ohitu behar dira, neurri batean edo bestean, kontabilitate publikoaren sistemetatik heldu diren emaitzen tipologia erabiltzen eta interpretatzen.

GEHIGARRIA. NAFARROAKO TRIBUTU OGASUNAK IGORRITAKO INFORMAZIOA

a) Ikuskapenerako Zerbitzuaren 2004ko ekitaldiko jarduketan laburpena (zenbatekoa eurotan)

Jarduketa arruntak (administrazio bideko espedienteak)				Zerga-delitua premiatu den jarduketak		Guztira,
Zergadun kop.	Akta kop.	Zehap.-esped. Kop.	Zenbatekoa	Espediente kopurua	Zenbatekoa	zenbatekoa
335	1.614	738	17.197.593	9	16.948.917	34.146.510

Jarduketa arruntak (administrazio bideko espediente bukatuak)

Hila	Zergadun kopurua	Aktak		Zehapenak		Guztira, zenbatekoa
		Akta kop.	Zenbatekoa	Espediente kopurua zehap.	Zenbatekoa	
Urtarrila	14	100	1.065.076,97	42	441.391,11	1.506.468,08
Otsaila	9	45	110.778,29	20	30.226,52	141.004,81
Martxoa	14	69	474.123,54	32	125.908,52	600.032,06
Apirila	38	162	2.139.724,19	75	972.694,13	3.112.418,32
Maiatza	34	142	697.718,11	56	164.256,09	861.974,20
Ekaina	31	160	852.321,73	84	401.436,79	1.253.758,52
Uztaila	20	90	323.548,65	44	82.090,28	405.638,93
Abuztua	19	83	387.968,67	44	92.083,34	480.052,01
Iraila	27	139	1.460.673,73	57	395.474,38	1.856.148,11
Urria	35	146	778.377,81	77	307.613,05	1.085.990,86
Azaroa	51	256	2.494.376,97	109	654.882,79	3.149.259,76
Abendua	43	222	1.967.954,81	98	776.892,86	2.744.847,67
Guztira	335	1.614	12.752.643,47	738	4.444.949,86	17.197.593,33

Zerga	Akta kop.	Zenbatekoa	
		Zenbatekoa	Ehunekoak
P.F.E.Z.	584	3.552.662,80	28
BEZa	548	3.592.151,92	28
Sozietateak	326	2.550.798,06	20
Bestelakoak (*)	156	3.057.030,69	24
Guztira	1.614	12.752.643,47	100

(*) Bestelakoak: Atxikipenak. I. Bereziak. I. Ondarea

Zerga-delitua premiatu den jarduketak

Espedienteak	Zenbatekoa
1	1.535.487,46
2	461.093,62
3	433.457,22
4	373.435,82
5	2.889.158,79
6	159.941,70
7	229.802,15
8	9.203.292,02
9	1.663.248,18
Guztira	16.948.916,96

b) PFEZren 2003ko aitorten bateratua (eurotan)

Zerga-oinarriaren osagaiak

	Aitorpen-egileen kopurua	Zenbatekoa
Lanaren etekinak	312.091	5.208.554.848,86
Higikorren kapitalaren etekinak	382.367	309.920.293,35
Higiezinen kapitalaren etekinak	20.414	96.276.884,01
Lanbidedunen jarduketan etekinak	17.767	183.806.957,51
Enpresen jarduketan etekinak	49.556	387.600.312,85
Zerga gard. soz. oinarri lik. posit. egoz.	889	17.686.815,83
Zati orok. igoera garbiak, zerga parad. egoz.	27.917	12.301.332,66
Zati berez. igoera garbiak	40.066	167.623.207,28

Zerga-oinarriko murriztapenak

	Aitorpen-egileen kopurua	Zenbatekoa
Pentsio planetako ekarpenak.	70.855	134.434.392,98
Mutualitateak	2.251	2.248.496,19
Pentsio plana eta ezkontidearen mutual.	5.736	6.265.930,00
Minusbaliatuen aldeko mutual. pents. planak	87	157.824,23
Kirolarien mutualitateak	30	384.604,82
Ezkontidearen aldeko konpentsazio pentsioak	792	3.858.791,49
Gutxieneko pertsonala	415.558	1.886.929.621,41
Gutxieneko familiarra, subjektu pasiboarekin bizi diren ondorengo ahaideen arabera.	147.246	226.975.443,58
Gutxieneko familiarra, subjektu pasiboarekin bizi diren aurreko ahaideen arabera.	8.360	12.707.565,73
Gutxieneko familiarra, minusbaliatuak	7.048	22.581.516,55
Gutxieneko familiarra, lagunduak	970	1.090.726,44
Zaintzailearen Gizarte Segurantzako kotizazioak	1.217	1.004.118,65

Kuota osoko kenkariak

	Aitorpenen kopurua	Zenbatekoa
Etxeb. errentamend. Kenkariaren zenbatekoa	8.772	4.065.649,20
Lan etekinak.	231.031	189.129.949,64
Ohiko etxebizitza erosteko inbertsioa.	100.667	103.277.113,96
Dohaintzak	37.124	3.255.501,68
Kultur intereseko ondareak, inber. edo konp.	25	3.687,27
Enpresaburuen eta profesionalen inb.	4.209	4.446.382,02
Enpresab. eta prof. lana sortzea	695	973.303,77
Dibidenduak	46.795	55.037.584,84
Errenta-emaileen zerga-kompentsazioa	13	6.470,42
Betebeharren atxik. hobariak	1.432	337.968,40
Nazioarteko ezarpen bikoitza.	209	701.202,94
Gardentasuna duten sozietateen kenkariak.	676	5.412.595,88
Ceutan edo Melillan eskuraturiko errentak.	10	18.586,59

Konturako ordainketak	
	Zenbatekoa
Atxikipenak	791.677.793,89
Zatikako ordainketak.	40.376.542,33
Alargun-pentsioengatiko kenkaria	397.077,22
JEZaren kuotengatiko kenkaria	3.466.301,56
Tributu-zorra, guztira	
	Zenbatekoa
Likidazio oinarria	4.498.130.058,00
Kuota osoa	1.095.286.667,70
Kuota diferentziala	763.150.650,19
Kuota diferentziala	- 77.463.242,17
Guztira	- 76.745.169,05

c) Ondareari buruzko 2003ko zergari buruzko txosten soziometrika

	Aitorpen-egileen kopurua	Zenbatekoa
Hiri-ondasunak	11.906	2.178,79
Landa-ondasunak	4.606	147,97
Ondasun atxikiak	2.105	333,82
Kontuetako gordailuak	13.737	937,05
Zor publikoa	2.312	180,25
Zor-agiriak	737	74,68
Parte-hartze kotizaziodunak	10.874	3.334,54
Parte-hartze kotizazio gabeak	8.847	4.276,19
Bizi aseguruak	3.782	195,66
Aldi baterako edo biziarteko errentak	71	5,91
Bitxiak	1.204	11,52
Artelanak eta zaharkiak	27	4,06
Eskubide errealak	188	22,81
Administrazio kontzesioak	72	0,81
Jabego intelektuala	6	0,94
Kontratu-aukerak	66	10,29
Bestelako ondasun eta eskubideak	2.614	355,94
Zorrak	4.648	412,09
Zerga oinarria		11.659,14
Murrizketak		2.199,66
Likidazio oinarria		9.459,48
Kuota osoa		112,10
Ingresatu ezineko soberakina		55,71
Kenkariak		14,09
Sartzeko kuota		42,30

